



# SAMSUNG

## GT-S3370 -aren Erabiltzailearen eskuliburua

Baliteke eskuliburu honen edukia zure gailuarekin erabat bat ez etortzea, gailuaren softwarearen edo zure zerbitzu-homitzailaren arabera.

### Adostasun-deklarazioaren laburpena

SAMUNGek adierazten du, bere ardurapean, tresna honek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1999ko martxoaren 9ko 99/05/EE Direktiban finkatutakoa betetzen duela; Direktiba hori azaroaren 20ko 1890/2000 Errege Dekretuaren bidez egokitu zen espainiar estatuko legeriara.

[www.samsungmobbile.com](http://www.samsungmobbile.com)



Euskaltelek itzultako eta  
ekoiztutako eskuliburua



# Eskuliburuaren erabilera

Eskerrak ematen dizkizugu Samsung telefono mugikorra aukeratzeagatik. Samsung-en aparteko teknologian eta goimailako estandarretan oinarritutako kalitate handiko komunikazio mugikorra eta entretenimendua emango dizu gailu honek.

Zure gailuaren funtzioak eta ezaugarriak azaltzeko bereziki diseinatua da erabiltzailearen eskuliburu hau.

- Gailua erabiltzen hasi aurretik, irakurri arretaz eskuliburu hau, erabilera zuzena eta segurua bermatzeko.
- Gailuaren aurrez zehaztutako doikuntzetan oinarrituta daude eskuliburu honetako deskribapenak
- Gorde eskuliburu hau behar duzunean kontsultatu ahal izateko.

## Jakinarazpenak egiteko ikonoak

Hasi aurretik, eskuliburu honetan agertzen diren ikonoak ezagutzea komeni da:



**Oharra:** zure telefonoa edo beste tresna batzuk kaltetu ditzaketen egoerak.



**Kontuz:** zure gailua edo beste tresna batzuk kaltetu ditzaketen egoerak.



**Oharra:** oharrak, erabilera-gomendioak edo informazio gehigarria.



**Ikus:** lotutako informazioa duten orrialdeak. Adibidez: ► 12 orr. (esan nahi du 12. orria ikusi behar duzula)



**Ondoren:** pauso bat emateko hautatu behar dituzun aukeren edo menuen ordena. Adibidez: Hasierako pantailan, ireki aplikazioen zerrenda eta hautatu **Mensajería > Nuevo mensaje** (horrek esan nahi du **Mensajería** hautatu ondoren **Nuevo mensaje** hautatu behar duzula).

[ ] **Kortxeteak:** gailuaren teklak. Adibidez: [📷] (pizteko tekla adierazten du).

## Copyright-aren informazioa

Gailu honen teknologia eta produktu guztien eskubideak haien jabeenak dira.

- Bluetooth SIG, Inc.-en marka komertzial erregistratua da Bluetooth®, mundu osoan.
- Java® Sun Microsystems, Inc.-en marka komertziala da.
- Microsoft Corporation-en marka komertzial erregistratua da Windows Media Player®.

# CE0168

# Edukia

## Instalazioa..... 9

Bilgarria kentzea.....	9
SIM edo USIM txartela eta bateria jartzea.....	9
Bateria kargatzea.....	11
Memoria-txartela sartzea (hautazkoa).....	13
Eskurako zinta jartzea (hautazkoa).....	16

## Sarrera.....17

Gailua piztea eta itzaltzea.....	17
Gailuaren aurkezpena.....	17
Ukipen-pantaila erabiltzea.....	20
Ukipen-pantaila eta teklak blokeatzea eta desblokeatzea.....	21

Menuetara sartzea.....	18
Aplikazioak hasieratzea eta kudeatzea.....	19
Widget-ak erabiltzea.....	20
Telefonoa pertsonalizatzea.....	21
Testua idaztea.....	26
Laguntza-informaziora sartzea.....	28

## komunikazioa.....29

Deiak.....	29
Erregistroak.....	32
Mezuak.....	33
MI.....	39

## entretenimendua ..... 40

Kamera .....	40
Musika .....	42
Musika bilatzea .....	44
FM irratia.....	44
Jokoak.....	45

## informazio pertsonala ..... 47

Kontaktuak .....	47
Egutegia .....	49
Zeregina.....	49
Oharrak.....	50
Ahots-grabagailua.....	50

## Weba..... 52

Internet .....	52
RSS irakurgailua.....	53
Samsung Apps .....	54
Google .....	54
Sinkronizatzea .....	55
ActiveSync.....	56
Sare sozialak .....	57
Last*fm .....	58

## konektagarritasuna..... 59

Bluetooth-a .....	59
PC konexioak .....	61

## **tresnak ..... 63**

Alarmak .....	63
Kalkulagailua .....	63
Bihurgailua .....	64
Irudi-editorea .....	64
Nire fitxategiak .....	65
Kronometroa .....	66
Tenporizadorea .....	66
Munduko erlojua .....	66

## **ezarpenak.....68**

Ezarpenen menura sartzea.....	68
Telefonoaren profilak.....	68
Pantaila eta argiztapena .....	68
Data eta ordua .....	68

Telefonoa .....	69
Desblokeo adimenduna.....	69
Ukipen-panela .....	69
Aplikazioak .....	69
Segurtasuna .....	70
Sarea .....	70
Memoria .....	71
Ezarpenak leheneratzea .....	71

## **arazoak konpontzea .....72**

## **erabilerari eta segurtasunari buruzko informazioa ..... 75**

## **aurkibidea .....83**

# Instalazioa

## Bilgarria kentzea

Egiaztatu produktuaren kaxak elementu hauek dituela:

- Gailu mugikorra
- Bateria
- Bidaiarako egokigailua (kargagailua)
- Erabiltzailearen eskuliburua



Erabili beti Samsung-ek software-osagarriak. Legez kanpoko softwareak eta kopia piratek kalteak edo erroreak eragin ditzakete gailuaren funtzionamenduan, eta fabrikatzailearen bermeak ez ditu estaltzen kalte horiek.




- Baliteke telefonoak dakartzan elementuak aldatzea zure lurraldean eskuragarri dauden zerbitzu-hornitzailearen edo softwarearen eta osagarrien arabera edo eskaintzaren arabera.
- Hainbat osagarri eskura ditzakezu Samsung-en tokiko hornitzailearen bidez.
- Emandako osagarriak dira gailuarentzako aproposenak.

## SIM edo USIM txartela eta bateria jartzea

Telefonia mugikorreko zerbitzu batean izena ematean, SIM txartela (abonatuaren identifikazio-modulua) jasoko duzu. Hor, izen-emateari buruzko informazioa duzu; adibidez, identifikazio pertsonaleko zenbakia (PIN) edo hautazko zerbitzuak. UMTS eta HSDPA zerbitzuak erabiltzeko, USIM txartel bat eskuratu dezakezu (abonatuaren identifikazio-modulu unibertsala).


SIM edo USIM txartela eta bateria sartzeko:

- 1 Telefonoa piztuta badago, luze sakatu pizteko/jitzaltzeko eta deiak amaitzeko tekla, telefonoa itzaltzeko.
- 2 Kendu atzeko estalkia



Kontuz kendu atzeko estalkia, azazkaletan kalterik ez izateko.


3 Sartu SIM edo USIM txartela.




- Jarri SIM edo USIM txartela gailuan, urre koloreko kontaktuak behera begira direla.
- SIM edo USIM txartela sartu gabe, sarerik gabeko zerbitzuak eta gailuaren menu batzuk erabil ditzakezu.



4 Sartu bateria.



5 Ezarri berriro atzeko estalkia.



## Bateria kargatzea

Gailua lehen aldiz erabili aurretik, bateria kargatu behar duzu.

Gailuarekin batera emandako kargagailuarekin kargatu dezakezu telefonoa. Halaber, PCra datu-kable baten bidez konektatuta ere karga dezakezu.



Samsung-ek baimendutako kargagailuak eta kableak bakarrik erabili. Baimenik gabeko kargagailuek eta kableek bateria leherrarazi dezakete eta gailua kaltetu.




Bateriaren maila baxua denean, gailuak ohartarazpen tonua igortzen du, eta bateria baxu dagoela dioen mezua bistaratzen du. Horrez gain, bateriaren ikonoa (🔋) hutsik agertzen da eta kolore gorria hartzen du. Bateriaren maila baxuegia bada telefonoak funtzionatzeko, deskonektatu egingo da automatikoki. Kargatu bateria gailua erabiltzen jarraitzeko.

## » Bidaiarako kargagailuarekin kargatzea


- 1 Ireki estalkia gailuaren goiko aldeko funtzio ugariko hartunerantz.
- 2 Konektatu bidaiarako kargagailuaren mutur txikia funtzio ugariko hartunera.



 Bidaiarako kargagailua behar bezala konektatzen ez baduzu, gailuak kalte larriak jasan ditzake. Bermeak ez ditu barne hartzen okerreko erabileragatik sortutako kalteak.

- 3 Konektatu bidaiarako kargagailuaren mutur handia korrontehartune batera.



- Gailua erabil dezakezu kargatzen ari dela, baina baliteke guztiz kargatzeko denbora gehiago behar izatea.
  - Litekeena da kargatzen ari dela gailua berotzea. Hori normala da, eta ez luke eraginik izan behar telefonoaren bizitza erabilgarrian edo errendimenduan.
  - Gailua ez bada ongi kargatzen, joan Samsung-en zerbitzu-zentro batera gailuarekin eta kargagailuarekin.
- 4 Bateria osorik kargatuta dagoenean (bateriaren ikonoak mugitzeari uzten dionean), deskonektatu bidaiarako kargagailua elikadura-iturritik.
-  Ez kendu telefonoaren bateria bidaiarako egokigailua deskonektatu aurretik. Horrek gailua kaltetu dezake.

## » Gailua kargatzea PCrako datu-kablearen bidez

Kargatu aurretik, egiaztatu PCa piztuta dagoela.

- 1 Ireki estalkia gailuaren goiko aldeko funtzio ugariko hartunerantz.
- 2 Konektatu PCrako datu-kablearen mutur bat (mikro USBa) funtzio ugariko hartunean.
- 3 Konektatu PCrako datu-kablearen beste muturra PCaren USB portuan.



Erabiltzen ari zaren PCrako datu-kable motaren arabera, baliteke kargatze-prozesuaren hasiera atzeratzea.

- 4 Bateria guztiz kargatuta dagoenean (bateriaren ikonoak mugitzeari utziko dio), deskonektatu PCrako datu-kablea gailutik eta ordenagailutik.

## Memoria-txartela sartzea (hautazkoa)

Multimedia-fitxategi gehiago gordetzeko, memoria-txartela sartu behar duzu. 32 GB-ra arteko microSD® edo microSDHC® memoria-txartelak onartzen ditu telefonoak (fabrikatzailearen eta memoria-txartel motaren arabera).



Industriak memoria-txartelentzat onartutako estandarrak erabiltzen ditu Samsung-ek, baina baliteke gailu honekin erabat bateragarriak ez izatea marka batzuk. Bateragarria ez den memoria-txartela erabiltzen baduzu, gailua edo memoria-txartela hondatu dezakezu, baita txartelean gordetako datuak ere.



- Gailuak memoria-txartelentzako FAT fitxategi-egitura soilik onartzen du (fitxategi-esleipenen taula). Fitxategi-egitura ezberdinarekin formateatu den memoria-txartela txertatzen baduzu, berriz formateatzeko eskatuko dizu gailuak.
- Datuak maiz idazten eta ezabatzen badituzu, memoria-txartelaren bizitza erabilgarria murriztuko da.

- 1 Kendu atzeko estalkia
- 2 Sartu memoria-txartel bat, etiketa gora begira duela.



- 3 Ezarri berriro atzeko estalkia.

### » Memoria-txartela kentzea

- 1 Ziurtatu memoria-txartela ez dela eragiketa bat egiten ari.
- 2 Kendu atzeko estalkia

- 3 Egin bultza telefonotik askatu arte, eta, gero, tira egin txartelari, zirrikitutik atera arte.

! Ez kendu memoria-txartelik telefonoa informazioa transferitzen ari dela; telefonoko edo txarteleko datuak galdu edo kalteku daitezke.

### » Memoria-txartela formateatzea


Memoria-txartela PC batean formateatzen bada, litekeena da gailuarekin bateragarria ez izatea. Formateatu memoria-txartela gailuan bakarrik.

Hasiera-pantailan, hautatu **Ajustes > Memoria > Detalles de tarjeta de memoria > Formatear > Sí**.


! Memoria-txartela formateatu aurretik, gogoan izan gailuan gordetako datu garrantzitsu guztiek segurtasun-kopia egin behar dela. Fabrikatzailearen bermeak ez ditu estaltzen erabiltzaileen ekintzek eragindako datu-galerak.

## Eskurako zinta jartzea (hautazkoa)

- 1 Kendu atzeko estalkia
- 2 Pasatu eskurako zinta zirrikitutik, eta lot iezaiozu irtengune txikiari.



- 3 Ezarri berriro atzeko estalkia.



# Nola hasi

## Telefonoa piztea eta itzaltzea

Telefonoa pizteko:

- 1 Luze sakatu pizteko/itzaltzeko tekla.
- 2 Idatzi zure PIN zenbakia eta sakatu Confimar (beharrezkoa bada).

Telefonoa itzaltzeko, egin 1. urratseko gauza bera.




- Bete langile ofizialek egindako ohar eta argibide guztiak haririk gabeko gailuak debekatuta dauden eremuetan (hegazkinetan eta ospitaletan, adibidez) zaudenean.
- Zure telefonoaren sarekoak ez diren zerbitzuak soilik erabiltzeko, aldatu profila konexiorik gabe. ► 22 or.





## Zure telefonoaren aurkezpena



### ► Telefonoaren diseinua








## » Teklak












Tekla	Funtzioa
 Markatzeko tekla	Dei bat egiteko edo erantzuteko; modu inaktiboan, azkena markatutako, galdutako edo jasotako deien zenbakiak berreskuratzen.
 Atzera egiteko tekla	Menuen moduan, aurreko mailara itzultzeko. Menu nagusira itzultzen da menu bat edo aplikazio bat itxi gabe (luze sakatu).
 Pizteko/deiak amaitzeko tekla	Telefonoa pizteko edo itzaltzeko (luze sakatuta) edo deiak amaitzeko; menuen moduan, hasierako menu-pantailara edo modu inaktibora itzultzeko.
 Bolumen-tekla	Telefonoaren bolumena doitzeko; modu inaktiboan, luze sakatu gezurrezko dei bat egiteko.

Tekla	Funtzioa
 Blokeatzeko tekla	Ukipen-pantaila eta teklak blokeatzeko edo ukipen-pantaila eta teklak desblokeatzeko (luze sakatu)
 Kameraren tekla	Modu inaktiboan, kamera pizteko; kameraren moduan, argazki bat edo bideo bat ateratzeko.











### › Ikono adierazleak

 Pantailan bistaritzen diren ikonoak aldatu egin daitezke herrialdearen eta zerbitzu-hornitzailearen arabera.

Ikonoa	Definizioa
	Seinalearen intentsitatea
	GPRS sarea konektatuta
	EDGE sarea konektatuta

Ikonoa	Definizioa
	UMTS sarea konektatuta
	Ahots-deia abian da
	Bideo-deia abian da
	Larrialdi-mezuaren funtzioa aktibatuta
	Web-ean nabigatzea
	Webgune seguru batera konektatuta
	Desplazamenduan (ohiko zerbitzu-eremutik kanpo)
	Deiak desbideratzeko aukera aktibatuta
	PCra konektatuta
	Bluetooth entzungailuak edo autorako esku libreko Bluetooth kita konektatuta
	Bluetooth-a aktibatuta



Ikonoa	Definizioa
	Alarma aktibatuta
	Memoria-txartela jarrita
	Testu-mezu berria (SMS)
	Multimedia-mezu berria (MMS)
	Mezu elektronikoa berria
	Ahots-postako mezu berria
	Normal profila aktibatuta
	Silencio profila aktibatuta
	Bateriaren karga-maila
	Uneko ordua

## Ukipen-pantaila erabiltzea

Gailuko ukipen-pantailaren bidez, erraz hauta ditzakezu elementuak, bai eta funtzioak egin ere. Ikas itzazu ukipen-pantaila erabiltzeko oinarriko ekintzak.



- Pantailan arrastorik ez egiteko, ez erabili tresna puntadunik.
- Ukipen-pantailak ez du ukitu behar beste gailu elektrikorik. Deskarga elektrostatiokoek ukipen-pantailaren funtzionamenduan eragin dezakete.
- Ukipen-pantailak ez du ura ukitu behar. Litekeena da ukipen-pantailak ongi ez funtzionatzea ingurune hezeetan edo bustitzen denean.



Ukipen-pantaila ahalik eta ondoen erabiltzeko, kendu pantailaren geruza babeslea telefonoa erabili aurretik.

Ekintza hauen bidez kontrola dezakezu ukipen-pantaila:

- Ukitzea: hatzarekin behin ukitu, menu bat, aukera bat edo aplikazio bat hautatzeko edo abiarazteko.
- Bi aldiz ukitzea: ukitu azkar bi aldiz behatzarekin, argazkiak edo web-orriak ikusten ari zarela tamaina handitu edo txikitzeko.
- Arrastatzea: luze sakatu elementu bat hatzarekin, eta, gero, arrastatu hatza elementua mugitzeko.
- Batetik bestera mugitzea: ukitu eta arrastatu hatza goraka, beheraka, ezkerreko edo eskuinera, zerrenda bateko elementu batetik bestera mugitzeko.



Telefonoa denbora jakin batean erabiltzen ez denean, telefonoak ukipen-pantaila itzaltzen du. Pantaila pizteko, sakatu edozein tekla.

## Ukipen-pantaila eta teklak blokeatzea eta desblokeatzea

Telefonoarekin egin nahi ez duzun eragiketarik ez egiteko, ukipen-pantaila eta teklak blokea ditzakezu.

Blokeatzeko, sakatu blokeatzeko tekla. Desblokeatzeko, luze sakatu blokeatzeko tekla. Pantaila blokeatzeko ikonoa luze sakatuta ere desblokea dezakezu.

Denbora jakin batean telefonoa erabiltzen ez baduzu ukipen-pantaila eta teklak automatikoki blokeatzeko ere konfiguratu dezakezu telefonoa. Menuen moduan, hautatu **Ajustes > Panel táctil > Activar en Bloqueo automático**.

## Menuetara sartzea

Telefonoaren menuetara sartzeko:

- 1 Modu inaktiboan, hautatu **Menú** menuen modura sartzeko.
- 2 Mugitu ezkerreko edo eskuinera, menuen moduko pantaila batera iritsi arte.
- 3 Hautatu menu edo aplikazio bat.
- 4 Sakatu Atrás tekla maila bat gora egiteko; sakatu pizteko/itzaltzeko eta deiak amaitzeko deiak menua edo aplikazioa itxi eta modu inaktibora itzultzeko.

## » Menuen moduan aplikazioak antolatzea

Menuen moduan aplikazioak berriro antolatu ditzakezu ordena aldatzeko edo kategoriaka antolatzeko (zure hobespenen eta beharren arabera).

- 1 Modu inaktiboan, hautatu **Menú** menuen modura sartzeko.
- 2 Aukeratu **Editar** (pantailaren goiko ezkerreko aldean dago).
- 3 Arrastatu aplikazio baten ikonoa nahi duzun lekura. Menu nagusiko beste pantailara mugi dezakezu aplikazio baten ikonoa.
- 4 Hautatu **Guardar** edo **Hecho**.



Hautatu **Restablecer** menu nagusiko pantailak hasieratzeko.

## Aplikazioak hasieratzea eta kudeatze

### » Hainbat aplikazio hasieratzea

Telefonoak zenbait zeregin egiteko aukera ematen du, aldi berean zenbait aplikazio exekutatuta.

Zenbait aplikazio exekutatzeko, luze sakatu Atrás tekla eta hautatu aplikazio bat.



Baliteke datu-konexioagatik kargu gehigarriak kobratzea Google Maps edo berehalako mezularitza bigarren mailan exekutatzen ari direnean.

### » Zereginen administratzailea erabiltzea


Hainbat aplikazio kudeatu ditzakezu zereginen administratzailearekin.

Zereginen administratzailea abiarazteko, hautatu **Ad tarea** menuen moduan. Aktibo dauden aplikazioen zerrenda agertuko da.



Bistaratzeko modua aldatzeko, hautatu **Vista de lista** edo **Vista 3D**.

Kontrolatu aktibo dauden aplikazioak honela:

- Aplikazioak trukatzeko, hautatu aktibo dauden aplikazioen zerrendako aplikazio bat.
- Aplikazio bat ixteko, hautatu .
- Aplikazio guztiak ixteko, hautatu **Fin todas aplic.**

## Widget-ak erabiltzea

Widget-ak aplikazio txikiak dira eta funtzio eta informazio erabilgarri eskaintze dute hasierako pantailan.



- Widget batzuk web-zerbitzuetara konektatzen dira. Widget web bat hautatzean, baliteke kargu gehigarriak kobratzea.
- Eskuragarri dauden widget-ak aldatu egin daitezke zerbitzu-hornitzailearen edo zu zauden eremuaren arabera.

## » Widget-en tresna-barra irekitzea

Widget-en tresna barra ireki eta widget-etara sartzeko:

- 1 Modu inaktiboan, hautatu pantailaren behealdean ezkerrean dagoen gezia, widget-en tresna-barra irekitzeko.
- 2 Mugitu gorantz edo beherantz widget-en tresna-barran, erabili nahi duzun widget-a aurkitu arte.
- 3 Arrastatu widget-a hasierako pantailara edo hautatu widget-a hasierako pantailan aktibatzeko.


Widget-a berriro ere widget-en tresna-barrara eramateko, arrastatu widget-en tresna-barrara.





Hasierako pantailako panelak antolatu ditzakezu gogokoen dituzun widget-ekin. Mugitu ezkerrean edo eskuinera, panel batera iritsi arte, eta, gero, kokatu widget-ak pantailako edozein lekutan.

## » Widget-ak ikustea edo aldatzea

Widget-en izenak ikus ditzakezu edo widget-ak hautatu ditzakezu widget-en tresna barran txertatzeko.

- 1 Ireki widget-en tresna-barra, eta hautatu . Markatuta dauden widget-ak erabilgarri daude widget-en tresna-barran.
- 2 Hautatu widget-en tresna-barrari gehitu nahi dizkiozun widget-ak.
- 3 Hautatu **Guardar**.

## » Widget berriak deskargatzea

- 1 Ireki widget-en tresna-barra, eta hautatu .
  - 2 Hautatu widget-ak bilatzeko aukera bat.
- Testua sartzeko eremuan gako-hitz bat sartu eta  hautatu dezakezu.
- 3 Mugitu widget-en zerrendan zehar, eta hautatu widget bat, deskargatzeko.

Deskarga amaitzen denean, widget-a automatikoki txertatuko da widget-en tresna-barran.



Widget-en tresna-barra betea badago, deskargatzen diren widget-ak ez dira automatikoki txertatuko tresna-barran. Widget batzuk kendu behar dituzu tresna-barratik, eta eskuz sartu behar dituzu berriak.

## Telefonoa pertsonalizatzea

Pertsonalizatu telefonoa zure lehenespenean arabera, ahalik eta gehien aprobetxatzeko.

### » Uneko data eta ordua definitzea

- 1 Menuen moduan, hautatu **Ajustes > Fecha y hora**.
- 2 Hautatu ordu-zona eguneratzeko aukera, eta hautatu ordu-zona bat.
- 3 Zehaztu orduaren eta dataren formatua, eta sartu uneko ordua eta data.
- 4 Hautatu **Guardar**.

## › Teklen tonuen bolumena doitzea

Modu inaktiboan, sakatu bolumen-tekla gorantz edo beherantz.

## › Ukipen-pantailaren bibrazioaren intentsitatea doitzea

Telefonoaren pantaila ukitzen duzunean sortzen den bibrazioaren intentsitatea doitu dezakezu.


- 1 Menuen moduan, hautatu **Ajustes > Teléfono > Vibración al pulsar**.
- 2 Mugitu kontrol lerragarria ukipen-pantailako bibrazioaren intentsitatea doitzeko.
- 3 Hautatu **Guardar**.

## › Isilik profilera aldatzea

Modu inaktiboan, hautatu **Teclado** eta luze sakatu **#** telefonoaren soinua aktibatzeke edo desaktibatzeke.

## › Soinuaren profila konfiguratzeko

Telefonoaren soinua alda ditzakezu; horretarako, uneko soinua pertsonaliza dezakezu edo beste soinua profila bat hauta dezakezu. Profila bat konfiguratzeko:

- 1 Menuen moduan, hautatu **Ajustes > Perfiles del teléfono**.
- 2 Hautatu  eta erabiltzen ari zaren profila.
- 3 Pertsonalizatu soinua aukerak sarrerako deietarako, sarrerako mezuarako eta telefonoaren beste soinuetarako.



Erabilgarri dauden soinua aukerak aldatu egiten dira hautatu duzun profila arabera.

- 4 Hautatu **Guardar**.

Beste profila batera aldatzeko, hautatu bat zerrendatik.

## » **Hasierako pantailarako atzealde bat hautatzea**

Pantailaren atzealde desberdinak aukeratu ditzakezu hasierako pantailako panel bakoitzerako.

- 1 Modu inaktiboan, mugitu ezkerrera edo eskuinera, hasierako pantailako panel batera iritsi arte.
  - 2 Menuen moduan, hautatu **Ajustes > Pantalla e iluminación > Fondo de pantalla**.
  - 3 Mugitu eskuinera edo ezkerrera, irudi batera iritsi arte.
- Irudien karpeta irudi bat aukeratzeko, hautatu **Imágenes**.
- 4 Hautatu **Definir**.

## » **Pantailaren distira doitzea**



Pantailaren distira-mailak eragina du telefonoak bateria kontsumitzeko duen abiaduran.

- 1 Menuen moduan, hautatu **Ajustes > Pantalla e iluminación > Brillo**.

- 2 Arrastatu kontrol lerragarria, distira-maila doitzeko.
- 3 Hautatu **Guardar**.

## » **Ukipen-pantaila kalibratzea**

Pantaila kalibra dezakezu, telefonoak sarrerak hobeto ezagut ditzan.

- 1 Menuen moduan, hautatu **Ajustes > Teléfono > Calibración**.
- 2 Sakatu pantailako objektua, kalibraketa amaitu arte.
- 3 Hautatu **Sí**.

## » **Ukipen-pantaila trazuekin desblokeatzea**

Desblokeo adimendunari esker, karaktere jakin bat idaztean ukipen-pantaila desblokea dezakezu (blokeatua bazegoen). Trazuen bidez desblokeatzea konfiguratzeko:

- 1 Menuen moduan, hautatu **Ajustes > Desbloqueo inteligente**.
- 2 Hautatu **Activar, Desbloqueo por trazos** aukeran.

3 Hautatu desblokeatzeko aukera bat.

Soilik desblokeatzeko, desblokeatu eta markaketa bizkorreko zenbaki bati deitzeko edo desblokeatu eta aplikazio bat abiarazteko konfiguratu dezakezu telefonoa. Telefonoa soilik desblokeatzeko konfiguratu baduzu, joan 5. urratsera.

4 Hautatu markaketa bizkorreko zenbaki bat, markatzeko, edo hautatu aplikazio bat abiarazteko.

5 Hautatu trazu bat (A-tik Z-ra) desblokeo adimendunaren funtzioa erabiltzeko.

Trazuentzako hizkuntza bat hautatzeko, hautatu **Cambiar idioma**.

6 Sakatu Atzera tekla. Telefonoa soilik desblokeatzeko konfiguratu baduzu, joan 7. urratsera.

7 Hautatu **Guardar**.

Ukipen-pantaila desblokeatzeko, sakatu edozein tekla eta idatzi erabili nahi duzun desblokeo-funtzioari dagokion trazua.

## » Telefonoa blokeatzea

Telefonoaren pasahitza aktibatzean telefonoa blokea dezakezu.

1 Menuen moduan, hautatu **Ajustes > Seguridad**.

2 Hautatu **Activar, Bloqueo del teléfono** aukeran.

3 Sartu pasahitz berria (4 eta 8 digitu artean), eta hautatu **Confirmar**.

4 Sartu berriro pasahitz berria eta sakatu **Confirmar**.



Pasahitza behar den menu batean lehen aldiz sartzean, pasahitz bat sortzeko eta berresteko eskatuko zaizu.

Telefonoaren blokeo-funtzioa aktibatuta badago, pasahitza sartu beharko duzu telefonoa pizten duzun bakoitzean.



- Pasahitza ahazten bazaizu, eraman telefonoa Samsung-en zerbitzu teknikoko zentro batera, desblokea dezaten.
- Legez kanpoko softwareak erabiltzearen ondorioz pasahitzak edo informazio pribatua galduz gero edo beste kalte bat jasanez gero, Samsung ez da kalte horien arduradun egingo.



## » SIM edo USIM txartela sartzea

Telefonoa blokea dezakezu SIM edo USIM txartelarekin emandako PINa aktibatzean.

- 1 Menuen moduan, hautatu **Ajustes > Seguridad**.
- 2 Hautatu **Activar, Bloqueo del PIN** aukeran.
- 3 Sartu zure SIM edo USIM txartelaren PINa, eta hautatu **Confirmar**.

PINaren blokeo-funtzioa aktibatuta badago, PINa sartu beharko duzu telefonoa pizten duzun bakoitzean.



- PIN okerra gehiegitan idazten baduzu, SIM edo USIM txartela blokeatu egingo da. PINa desblokeatzeko kodea (PUK) sartu behar duzu, SIM edo USIM txartela desblokeatzeko.
- Okerreko PUKa sartzeagatik SIM edo USIM txartela blokeatzen baduzu, eraman txartela zure zerbitzu-homitzaileari, desblokea dezan.

## » Mugikor-bilatzailea aktibatzea

Norbaitek telefonoan SIM edo USIM txartel berri bat sartzen duenean, mugikor-bilatzailearen funtzioak kontaktu-zenbakia bidaltzen die hartzaile jakin batzuei, telefonoa kokatu eta berreskuratu ahal izateko.

- 1 Menduen moduan, hautatu **Ajustes > Seguridad > Rastreador móvil**.
- 2 Sartu pasahitza, eta hautatu **Confirmar**.
- 3 Hautatu **Activar**, mugikor-bilatzailea aktibatzeko.
- 4 Hautatu hartzailearen eremua, hartzaile-zerrenda irekitzeko.
- 5 Hautatu **Pulse aÑad destin**.
- 6 Idatzi telefono-zenbaki bat, herrialdeko kodea barne (+ sartuta), eta hautatu **Finalizado**.
- 7 Hartzaileak konfiguratzeko amaitzean, hautatu **Guardar**.
- 8 Sakatu hartzailea idazteko eremua.
- 9 Sartu hartzaile baten izena, eta hautatu **Finalizado**.
- 10 Hautatu **Guardar > Aceptar**.

## Testua idazteko




Testua idazteko, teklatu birtualeko karaktereak hauta ditzakezu edo eskuz idatz dezakezu pantailan.

### Testua idazteko modua aldatzea

Testua idazteko eremua ukitzean, teklatu birtuala duen sarrerako panela agertuko da lehenespenez.



Testua idazteko erabilgarri dauden metodoak aldatu egin daitezke, eskualdearen arabera.

- Testua idazteko modua aldatzeko, hautatu  eta hautatu testua sartzeko modu bat.
- ABC edo T9 moduen artean aldatzeko, hautatu **T9** teklatu birtualean. T9 modua aktibatuta dagoenean, T9 botoiaren ondoko puntua piztu egingo da.
- Letra larrira edo xehera aldatzeko edo zenbakizko ikurren modura aldatzeko, hautatu **Abc**.
- Sartutako testua ezabatzeko, hautatu .
- Tarte bat sartzeko, sakatu .
- Testua sartzeko hizkuntza aldatzeko, hautatu hizkuntzaren botoia pantailaren behealdean.

## Testua sartzea, testua sartzeko moduekin




1 Aldatu testua sartzeko metodoa.


Testua idazteko metodoa	Funtzioa
Teclado	Karakterek teklatuan hautatzeko.
Pant compl escr	Pantailaren edozein tokitan idazteko.
Cuadro escrit 1/ Cuadro escrit 2	Idazketa-koadroetan idazteko. "Cuadro escrit 1" moduan bazaude, zenbakiak eta sinboloak sar ditzakezu <b>?1</b> koadroan.

2 Aldatu testua sartzeko modua.

3 Hautatu dagozkion tekla birtualak edo idatzi pantailan testua idazteko.



Testua teklatuarekin sartzeko, modu hauek erabil ditzakezu:


Modua	Funtzioa
ABC	Dagokion tekla birtuala hautatu dezakezu nahi duzun karakterea pantailan agertu arte.
T9	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. tekla birtualak sakatu ditzakezu hitz oso bat idazteko.</li> <li>2. Nahi duzun hitza pantailan ondo idatzita bistaratzen denean, sakatu  tarte sartzeko. Hitz zuzena agertzen ez bada, hautatu aukerako hitza bistaratutako zerrendan edo hautatu .</li> </ol> <p> Hitz T9 hiztegian sar dezakezu <b>Añadir</b> <b>palabra</b> hautatuta aukerako hitzen zerrendaren goiko aldean.</p>

Modua	Funtzioa
Zenbakiak	<p>Dagokion tekla birtuala hauta dezakezu zenbaki berri bat sartzeko.</p> <p> ABC edo T9 moduan tekla birtual bat luze sakatzen baduzu, zenbakiak sar ditzakezu.</p>
Ikurrak	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. ◀ edo ▶ hauta ditzakezu nahi duzun sinbolo-multzora joateko.</li> <li>2. Dagokion tekla birtuala hauta dezakezu sinbolo berri bat sartzeko.</li> </ol>

## Laguntza-informaziora sartzea

Ikas ezazu telefonoko funtzio nagusiei buruzko informazio erabilgarrira sartzen.

- 1 Modu inaktiboan, ireki widget-en tresna-barra, eta hautatu .
- 2 Biratu telefonoa ezkerrera ikuspegi horizontala eskuratzeko.
- 3 Hautatu laguntza-gai bat, aplikazio edo funtzio bati buruzko informazioa eskuratzeko.
- 4 Joan eskuinera informazio gehiago ikusteko. Aurreko mailara itzultzeko, hautatu .




# komunikazioa

## Deiak

Atal honetan hauek ikasiko dituzu: deiaren funtzioak erabiltzen, deiak egiten eta jasotzen (hitz egiten ari zarela eskura dauden aukerak erabiliz) eta deiekin erlazionatutako funtzioak pertsonalizatzen eta erabiltzen.

### » Deiak egitea eta jasotzea

#### Deitzea

- 1 Modu inaktiboan, hautatu **Teclado** eta idatzi area-kodea eta telefono-zenbakia.
- 2 Sakatu markatzeko tekla zenbakia markatzeko. Bideo-dei bat egiteko, hautatu  > **Videollamada**.



Dei bat egiten ari zarenean, telefonoak automatikoki blokeatzen du ukipen-pantaila, nahi gabe testurik ez sartzeko. Desblokeatzeko, luze sakatu blokeatzeko tekla.

- 3 Deia amaitzeko, sakatu pizteko/itzaltzeko eta deiak amaitzeko tekla.



- Erabili telefono-agenda maiz markatzen dituzun zenbakiak gordetzeko. ► 47 or.
- Markatu dituzun azken zenbakiei berriro deitzeko dei-erregistrora azkar joan nahi baduzu, sakatu markatzeko tekla.

#### Dei bati erantzutea

- 1 Dei bat jasotzen duzunean, sakatu markatzeko tekla.



Telefonoa jotzen ari denean, sakatu bolumenaren tekla bolumena doitzeko edo sakatu ezazu luze doinua isilarazteko.

- 2 Deia amaitzeko, sakatu pizteko/itzaltzeko eta deiak amaitzeko tekla.

#### Dei bat ez onartzea

Dei bat jasotzen duzunean, sakatu pizteko/itzaltzeko eta deiak amaitzeko tekla. Deia egiten ari den pertsona okupatuta dagoela adierazten duen tonua entzungo du.



Zenbaki-zerrenda bat konfiguratu dezakezu zenbaki horien sarrerako deiak automatikoki ez onartzeko. ► 31 or.

## Nazioarteko zenbaki batera deitzea

- 1 Modu inaktiboan, hautatu **Teclado** eta luze sakatu **0** tekla + karakterea sartzeko.
- 2 Idatzi markatu nahi duzun zenbaki osoa (herrialdearen kodea, eskualdeko kodea eta telefono-zenbakia), eta, gero, sakatu markatzeko tekla deia egiteko.

## » Ahots-dei batean aukerak erabiltzea

Ahots-dei bat martxan dagoen bitartean aukera hauek erabil ditzakezu:

- Ahotsaren bolumena doitzeko, sakatu bolumenaren tekla gorantz edo beherantz.
- Bozgorailuaren funtzioa aktibatzeke, hautatu **Altavoz > Sí**.



Zarata handia dagoen lekuetan, baliteke deiak ez entzutea bozgorailuaren funtzioarekin hitz egitean. Erabili telefonoaren modu arrunta audioak hobeto funtziona dezan.

- Dei bat zain jartzeko, hautatu **Espera**. Zain dagoen dei bat berreskuratzeke, sakatu **Recup**.
- Beste dei bat egiteko, jarri lehen deia zain, eta, gero, markatu zenbaki berria.
- Dei berri bati erantzuteke, sakatu markatzeko tekla zain dagoen deiaren tonua entzuten duzunean. Lehen deia zain geratuko da automatikoki. Zain dagoen deiaren zerbitzuan izena eman behar duzu, funtzio hori erabiltzeko.
- Dei batetik bestera joateke, hautatu **Cambiar**.

## » Galdutako deiak ikustea eta markatzea

Telefonoko pantailan agertzen dira galdutako deiak.

- Dei galdu bat duzunean, hautatu deia gertaeren oharren widget-etik, eta hautatu **Llamar** markatzeko.
- Dei galdu bat edo gehiago dituzunean, hautatu deia gertaeren oharren widget-etik, eta hautatu **Registros** eta dei galdu bat.

## » Funtzio osagarriak erabiltzea

Deiekin loturiko beste zenbait funtzio ere erabil ditzakezu. Esaterako, automatikoki ez onartzea, gezurrezko deiak egitea edo markaketa finkoko zenbakien modua (FDN).

### Deiak automatikoki ez onartzeko funtzioa zehaztea

Erabili deiak automatikoki ez onartzeko funtzioa zenbaki zehatz batzuen deiak automatikoki ez onartzeko. Deiak automatikoki ez onartzeko funtzioa aktibatze eta ez onartzeko zenbakien zerrenda konfiguratzeko:

- 1 Menuen moduan, hautatu **Ajustes > Aplicaciones > Llamar > Todas las llamadas > Rechazo automático**.
- 2 Hautatu **Activar, Activación** aukeran.
- 3 Hautatu **Añadir número**.
- 4 Hautatu zenbakiak sartzeko eremua, sartu ez onartzea nahi duzun zenbakia, eta hauatu **Finalizado > Guardar**.
- 5 Zenbaki gehiago gehitzeko, errepikatu 3 eta 4 pausoak.
- 6 Sakatu zenbakien ondoko kontrol-laukitxoak.
- 7 Hautatu **Guardar**.

## Gezurrezko deiak egitea

Dei bat jaso duzun itxurak egin ditzakezu bilera batetik ihes egiteko edo nahi ez duzun elkarrizketarik ez izateko.


Gezurrezko dei bat egiteko, luze sakatu bolumenaren tekla modu inaktiboan. Denbora jakin bat igarotakoan, gezurrezko dei bat sartuko zaizu.



Gezurrezko deiak egin arteko denbora alda dezakezu. Menuen moduan, hautatu **Ajustes > Aplicaciones > Llamar > Llamada falsa > Temporizador de llamada falsa**.

Gezurrezko deiek errealagoen itxura izan dezaten, aurrez grabatutako ahots bat erreproduzitu dezakezu. Ahots bat grabatzeko:

- 1 Menuen moduan, hautatu **Ajustes > Aplicaciones > Llamar > Llamada falsa > Llamada de voz falsa**.
- 2 Hautatu **Activar, Llamada de voz falsa** eremuan.
- 3 Hautatu **Grabación de voz**.
- 4 Hautatu ● grabatzen hasteko.

- 5 Hitz egin mikrofonotik hurbil.
- 6 Amaitzen duzunean, hautatu . Grabatutako ahotsa erreproduzitu da.

### **Markaketa finkoko zenbakien modua erabiltzea (FDN)**

FDN moduan, irteerako deiak mugatzen ditu telefonoak. FDN zerrendan gordetako zenbakietara bakarrik deitu daiteke. Telefono-agendako FDN zerrenda konfiguratu behar duzu FDN modua erabili aurretik. ▶ 48 or.

FDN modua aktibatzeko:

- 1 Menuen moduan, hautatu **Ajustes > Seguridad**.
- 2 Hautatu **Activar, Modo de marcación fija** aukeran.
- 3 Sartu SIM edo USIM txartelarekin batera emandako PIN 2 kodea, eta hautatu **Confirmar**.

## **Erregistroak**

Ikasi egindako, jasotako edo galdutako deien eta bidalitako mezuen erregistroak ikusten eta kudeatzen.

### **› Deien eta mezuen erregistroak ikustea**

Iragazitako dei eta mezuen erregistroak ikus ditzakezu, motaren arabera.

- 1 Menuen moduan, hautatu **Registros**.
- 2 Hautatu goitibeherako **Todos** menua, eta, gero, hautatu erregistro-mota bat.
- 3 Hautatu erregistro bat xehetasunak ikusteko.



Xehetasunen ikuspegian, zenbaki bat markatu dezakezu, zenbaki horri mezua bidali eta zenbakia kontaktuen telefono-agendara edo ez onartuen zerrendara sar dezakezu.

### **› Erregistro-kudeatzailea ikustea**

Erregistro-kudeatzailean, bidalitako edo jasotako datu- edo mezu-kopurua eta deien kostua eta iraupena egiaztatu ditzakezu.

- 1 Menuen moduan, hautatu **Registros > Admins. Reg.**



## 2 Hautatu nahi duzun aukera.

Aukera	Funtzioa
Contador de datos	Bidalitako edo jasotako datu-kopurua ikusteko.
Contador de mensajes	Bidalitako edo jasotako mezu-kopurua ikusteko.
Coste de llamada	Deien kostu-erregistroak, azken deiaren kostua eta dei guztien kostua ikusteko. Dibisa eta unitate bakoitzaren prezioa ere konfigura dezakezu, edo deiak mugatzeko kostuaren muga ere konfigura dezakezu, dei-planaren arabera. Baliteke kostuaren kontagailua erabilgarri ez egotea, SIM edo USIM txartelaren arabera.
Duración de llamadas	Deien denborari buruzko datuak, azken deiaren iraupena eta dei guztien iraupena ikusteko.

Erregistroak berriro ezar ditzakezu erregistro-kudeatzailean. Pantaila guztietan, hautatu balioak berrezartzeko botoia.

## Mezuak

Testu-mezuak (SMS), multimedia-mezuak (MMS) edo mezu elektronikoak sortzeko eta bidaltzeko edo bidalitako eta jasotako mezuak ikusteko edo kudeatzeko.



Litekeena da tokiko zerbitzu-eremutik kanpo zaudenean mezuak bidali edo jasotzeagatik kargu osagarriak izatea. Xehetasun gehiago jakiteko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

## › Testu-mezua bidaltzea

- 1 Menuen moduan, hautatu **Mensajes > Crear mensaje > Mensaje**.
- 2 Hautatu hartzaileak sartzeko eremua, eta hautatu **Contactos**. Beste aukera bat hautatzen baduzu, zenbakia eskuz sar dezakezu.

- 3 Hautatu kontaktuen ondoko egiaztapen-laukiak, eta hautatu **Añadir**.
- 4 Hautatu **Tocar para añadir texto**.
- 5 Idatzi mezuaren testua, eta hautatu **Finalizado**.
- 6 Hautatu **Enviar** mezua bidaltzeko.

### › MMSaren profila konfiguratzeko

Multimedia-mezuak bidali eta jasotzeko, konexio-profil bat aktibatu behar duzu, MMSen zerbitzarira konektatu ahal izateko. Zure zerbitzu-hornitzaileak aurrez zehaztutako profilez gain, zure konexio-profila gehitu dezakezu.

- 1 Menuen moduan, hautatu **Mensajes > Ajustes > Mensajes multimedia > Perfiles**.
- 2 Hautatu **Crear**.
- 3 Pertsonalizatu konexio-profilaren parametroak.
- 4 Amaitutakoan, hautatu **Guardar**.

### › Multimedia-mezuak bidaltzea

- 1 Menuen moduan, hautatu **Mensajes > Crear mensaje > Mensaje**.
- 2 Hautatu hartzaileak sartzeko eremua, eta hautatu **Contactos**. Zenbaki bat edo helbide elektronikoa bat eskuz sar dezakezu, edo deien erregistrotik edo telefono-agendatik zenbaki bat hauta dezakezu, beste aukeraren bat hautatuz gero.
- 3 Hautatu kontaktuen ondoko egiaztapen-laukiak, eta hautatu **Añadir**. Helbide elektronikoa bat sartzen baduzu, multimedia-mezu bat bidali nahi duzun galdetuko dizu telefonoak. Sakatu **Aceptar** berresteko.
- 4 Hautatu **Tocar para añadir texto**.
- 5 Idatzi mezuaren testua, eta hautatu **Finalizado**.
- 6 Hautatu **Añadir archivo adjunto** eta erantsi fitxategi bat. Fitxategien zerrendatik fitxategi bat hautatu edo argazki bat atera dezakezu, bideo bat edo soinu-klip bat.
- 7 Hautatu **Enviar** mezua bidaltzeko.

## » Profil bat eta posta elektronikoko kontu bat konfiguratzeko

Zure zerbitzu-hornitzaileak aurrez hornitutako posta elektronikoko kontuaz gain, posta elektronikoko zure kontu pertsonalak ere gehitu ditzakezu. Zure konexio-profila ere gehitu dezakezu, posta elektronikoko zerbitzuak erabiltzeko.

### Posta elektronikoko kontu bat konfiguratzeko

- 1 Menuen moduan, hautatu **Mensajes > Ajustes > Email > Cuentas de correo electrónico**.

Zure posta elektronikoa konfiguratzeko laguntza eskuratu nahi baduzu, hautatu **Asistente de configuración de correo electrónico**.

- 2 Hautatu **Crear**.
- 3 Pertsonalizatu kontuaren ezarpenak.
- 4 Amaitutakoan, hautatu **Guardar**.

### Posta elektronikoko profil bat konfiguratzeko

- 1 Menuen moduan, hautatu **Mensajes > Ajustes > Email > Perfiles**.
- 2 Hautatu **Crear**.

- 3 Pertsonalizatu sarearen ezarpenak.
- 4 Amaitutakoan, hautatu **Guardar**.

## » Mezu elektronikoa bidaltzeko

- 1 Menuen moduan, hautatu **Mensajes > Crear mensaje > Email**.
- 2 Hautatu hartzaileak sartzeko eremua, eta hautatu **Contactos**.  
Beste aukeraren bat hautatzen baduzu, helbide elektronikoa eskuz sar dezakezu.
- 3 Hautatu kontaktuen ondoko egiaztapen-laukiak, eta hautatu **Añadir**.
- 4 Hautatu **Toque para añadir asu...**, sartu gai bat, eta hautatu **Finalizado**.
- 5 Hautatu **Tocar para añadir texto**, sartu mezu elektronikoa testua, eta, hautatu **Finalizado**.
- 6 Hautatu **Añadir archivos**, eta erantsi fitxategi bat. Fitxategien zerrendatik fitxategi bat hautatu edo argazki bat atera dezakezu, bideo bat edo soinu-klip bat.
- 7 Hautatu **Enviar** mezua bidaltzeko.

## » Mezu bat ikustea

Jasotako, bidalitako eta gordetako mezuak automatikoki ordenatuko dira mezu-karpeta hauetan:

- **Buzón de entrada:** jasotako testu-mezuak edo multimedia-mezuak.
- **Correo:** jasotako mezu elektronikoak.
- **Salida:** bidaltzen ari diren edo bidaltzeko zain dauden mezuak.
- **Enviados:** bidalitako mezuak
- **Borradores:** etorkizunean erabiltzeko gorde diren mezuak.

### Testu-mezu bat edo multimedia-mezu bat ikustea

- 1 Menuen moduan, hautatu **Mensajes**, eta hautatu mezu-karpeta bat (**buzón de entrada** edo **enviados**).
- 2 Hautatu testu-mezu bat edo multimedia-mezu bat.

### Mezu elektroniko bat ikustea

- 1 Menuen moduan, hautatu **Mensajes > Correo**.
- 2 Hautatu posta elektronikoko kontu bat.
- 3 Hautatu **Descargar**.

- 4 Hautatu mezu elektroniko bat edo goiburuko bat.
- 5 Goiburuko bat hautatu baduzu, sakatu **Recuperar** mezua ikusteko.

## » Ahots-postako mezuak entzutea

Dei galduak ahots-postako zerbitzarira desbideratzeko konfiguratzen baduzu, deitzen duen jendeak aukera izango du ahots-mezu bat uzteko zuk sarrerako deiei erantzuten ez diezunean. Ahots-postako postontzira sartu eta mezuak entzuteko:

- 1 Modu inaktiboan, hautatu **Teclado**, eta luze sakatu **1** tekla.
- 2 Jarraitu ahots-postaren zerbitzariaren argibideei.



Ahots-postaren zerbitzariaren zenbakia gorde behar duzu, zerbitzarira sartu aurretik. Zerbitzu-hornitzaileak emango dizu zenbaki hori.

## › Mezu-txantiloak erabiltzea

Ikasi testu-txantiloak eta multimedia-txantiloak sortzen eta erabiltzen mezu berriak azkar eta erraz sortzeko.

### Testu-txantilo bat sortzea

- 1 Menuen moduan, hautatu **Mensajes > Plantillas > Plantillas de texto**.
- 2 Sakatu **Crear** txantilo-leiho berri bat irekitzeko.
- 3 Sakatu testua sartzeko eremua, sartu testua, eta hautatu **Finalizado**.
- 4 Hautatu **Guardar**.


Testu-mezu bat, multimedia-testu bat edo mezu elektronikoko bat sortzean, testu-txantilo bat sar dezakezu txantiloak sartzeko aukeraren bidez.

### Multimedia-txantilo bat sortzea

- 1 Menuen moduan, hautatu **Mensajes > Plantillas > Plantillas multimedia**.
- 2 Sakatu **Crear** txantilo-leiho berri bat irekitzeko.

- 3 Sortu multimedia-mezu bat, gaia jarrita eta nahi dituzun fitxategiak erantsita, txantilo gisa erabiltzeko. ▶ 34 or.

- 4 Hautatu **Guardar**.

Multimedia-testu berri bat sortzean multimedia-txantilo bat erabili nahi baduzu, txantiloien zerrendan hautatu  erabili nahi duzun txantiloaren ondoan. Multimedia-mezu berri gisa irekiko da txantiloa.

## › Mezuak administratzeko karpeta bat sortzea

Ikasi karpetak sortzen, mezuak zure hobespen eta beharren arabera kudeatzeko.

- 1 Menuen moduan, hautatu **Mensajes > Mis carpetas**.
- 2 Hautatu **Crear carpeta**.
- 3 Idatzi beste karpeta-izen bat, eta hautatu **Finalizado**.

Orain, aukera izango duzu mezu garrantzitsuak sarrerako ontzitik edo bidalitakoen karpetatik karpeta pertsonalizatu batera mugitzeko, errazago kudeatu ditzazun eta nahi gabe ez ezabatzeko.

## » Larrialdi-mezuak bidaltzea

Larrialdi-kasuetan, larrialdi-mezu bat bidali diezaiekezu hartzaile jakin batzuei, laguntza eskatzeko.

Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

- 1 Menuen moduan, hautatu **Mensajes > Mensajes de emergencia > Opciones de envío**.
- 2 Hautatu **Activar**, larrialdi-mezularitzaren funtzioa aktibatzeko.
- 3 Hautatu hartzailearen eremua, hartzaile-zerrenda irekitzeko.
- 4 Hautatu **Pulse añad destin**, sartu hartzailearen zenbakia eta hautatu **Finalizado**. Zoaz 7. urratsera. Kontaktuen zerrendan gordetako zenbaki bat hautatzeko, hautatu  kontaktuen zerrenda irekitzeko, eta, gero, egin hurrengo urratsa.

- 5 Hautatu kontaktuak, eta, gero, hautatu **Añadir**.
- 6 Hautatu telefono-zenbaki bat (beharrezkoa bada). Hartzaileak konfiguratzen amaitzean, hautatu **Guardar**.
- 7 Hautatu **Repetir** goitibeherako menua eta larrialdi-mezua zenbat aldiz errepikatu behar den.
- 8 Hautatu **Guardar > Sí**.

Larrialdi-mezu bat bidaltzeko, ukipen-pantailak eta teklek blokeatuta egon behar dute. Sakatu bolumen-tekla lau aldiz.



Larrialdi-mezu bat bidali ondoren, telefonoaren funtzio guztiak etengo dira pizteko/jitzaltzeko eta deiak amaitzeko tekla edo blokeatzeko tekla sakatu arte.

## MI




- Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.
- Mezuen hizkuntza aldatzeko, joan mezularitza-aplikaziora eta hautatu **Ajustes > Teléfono > Idioma**.

- 1 Menuen moduan, hautatu **MI**.
- 2 Hautatu **OK** testua sartzeko leihoan.



Mezularitza-aplikazioan sartzen zaren lehen aldian, berresteko eskatuko dizu.

- 3 Sartu zure erabiltzailearen IDa eta pasahitza, eta, gero, hasi saioa.
- 4 Hitz egin zure senide eta lagunekin.



# entretanimendua

## Kamera

Ikas ezazu argazkiak eta bideoak egiten eta ikusten. Bereizmen hau duten argazkiak eta bideoak egin daitezke: argazkien kasuan, 1280 x 960 pixel artekoak (1,3 megapixel) eta, bideoen kasuan, 176 x 144 pixel artekoak.

### › Argazkia ateratzea

- 1 Modu inaktiboan, luze sakatu (...) kamera pizteko.
- 2 Biratu telefonoa ezkerrean ikuspegi horizontala eskuratzeko.






- Sakatu pantaila, bisorearen ikonoak ezkutatzeko edo bistaratzeko.
  - Memoriaren gaitasuna ezberdina izango da hartu nahi den irudiaren edo kondizioen arabera.
- 3 Fokatu objektiboa kamerarekin eta egin beharrezko doikuntzak.

- 4 Sakatu bolumenaren tekla irudia hurbiltzeko edo urrutiratzeko.
- 5 Sakatu (...), argazkia ateratzeko.  
Argazkia automatikoki gordeko da.

Argazkiak atera ondoren, hautatu  argazkiak ikusteko.

### › Irribarre bakoitzeko argazkiak ateratzea

Kamerak pertsonen aurpegiak ezagutu ditzake, eta aurpegi irribarretsuen argazkiak ateratzen lagundu.

- 1 Modu inaktiboan, sakatu  kamera pizteko.
- 2 Biratu telefonoa ezkerrean ikuspegi horizontala eskuratzeko.
- 3 Hautatu  > **Disparo por sonrisa.**
- 4 Egin beharrezko doikuntzak.
- 5 Sakatu .
- 6 Fokatu nahi duzuna kameraren lentearekin.

Telefonoak pertsonak ezagutzen ditu irudian, eta irribarreak detektatzen ditu. Pertsonak irribarre egiten duenean, telefonoak argazki bat ateratzen du automatikoki.



### › Argazki-serie bata ateratzea

Mugitzen ari diren gaien argazki-seriea erraz atera dezakezu. Erabilgarria da haurrei jolasean ari direla argazkiak ateratzeko edo kirol-gertaera batean argazkiak ateratzeko.

- 1 Modu inaktiboan, sakatu [📷] kamera pizteko.
- 2 Biratu telefonoa ezkerrera ikuspegi horizontala eskuratzeko.
- 3 Hautatu [S] > **Continuo**.
- 4 Egin beharrezko doikuntzak.
- 5 Luze sakatu ... Kamerak argazkiak ateratzen jarraituko du [📷] askatzen duzun arte.

### › Argazki panoramiko bat ateratzea

Argazki panoramikoak har ditzakezu argazki panoramikoaren modua erabilita. Modu hori ezin hobea da paisaien argazkiak ateratzeko.

- 1 Modu inaktiboan, sakatu [📷] kamera pizteko.
- 2 Biratu telefonoa ezkerrera ikuspegi horizontala eskuratzeko.
- 3 Hautatu [S] > **Panorama**.

- 4 Egin beharrezko doikuntzak.
- 5 Sakatu [📷], lehen argazkia ateratzeko.
- 6 Mugitu telefonoa poliki, hautatutako norabidean, eta lerrokatu koadroa bisorearekin.  
Koadroa eta bisorea lerrokatuta daudenean, kamerak automatikoki aterako du hurrengo argazkia.
- 7 Errepikatu 6. pausoa argazki panoramiko osatzeko.

### › Argazki mosaiko bat ateratzea

Zenbait argazki atera eta mosaiko batean konbina ditzakezu automatikoki.

- 1 Modu inaktiboan, sakatu [📷] kamera pizteko.
- 2 Biratu telefonoa ezkerrera ikuspegi horizontala eskuratzeko.  
Hautatu [S] > **Mosaico**.
- 4 Hautatu irudiaren diseinua eta sakatu [📷].
- 5 Egin beharrezko doikuntzak.
- 6 Sakatu [📷] segmentu bakoitzeko argazkiak ateratzeko.

## › Marko apaingarria duten argazkiak ateratzea

- 1 Modu inaktiboan, sakatu [📷] kamera pizteko.
- 2 Biratu telefonoa ezkerrera ikuspegi horizontala eskuratzeko.

Hautatu [S] > Marco.

- 4 Hautatu markoa eta sakatu [📷] tekla.
- 5 Egin beharrezko doikuntzak.
- 6 Sakatu [📷] argazki bat ateratzeko eta marko apaingarria automatikoki aplikatzeko.

## › Bideo bat grabatzea

- 1 Modu inaktiboan, luze sakatu [📷] kamera pizteko.
- 2 Biratu telefonoa ezkerrera ikuspegi horizontala eskuratzeko.
- 3 Hautatu [📷] bideokamera-modura aldatzeko.
- 4 Fokatu objektiboa kamerarekin eta egin beharrezko doikuntzak.
- 5 Sakatu bolumenaren tekla irudia hurbiltzeko edo urrutiratzeko.

6 Sakatu [📷] grabatzen hasteko.

7 Hautatu [📷] edo sakatu [📷] grabazioa geldiarazteko. Bideoa automatikoki gordetzen da.

Bideoak grabatu ondoren, hautatu [▶] bideoak ikusteko.

## Musika

Ikasi musika-erreproduzitzailarekin gogokoen duzun musika entzuten mugitzen zaren bitartean.

## › Musika-fitxategiak telefonoan eranstean






Hasteko, transferitu fitxategiak telefonora edo memoria-txartelera:


- Deskargatu fitxategiak webgunetik, haririk gabeko sarearen bidez. ▶ 52 or.
- Deskargatu fitxategiak PC batetik, Samsung Kies aukerako programa erabilia. ▶ 61 or.
- Jaso fitxategiak Bluetooth bidez. ▶ 60 or.
- Kopiatu fitxategiak memoria-txartel batera ▶ 62 or.
- Sinkronizatu fitxategiak Windows Media 11-ren erreproduzitzailarekin. ▶ 62 or.

## » Musika erreproduzitzea

Fitxategiak telefonora edo memoria-txartelera transferitu ondoren:

- 1 Menuen moduan, hautatu **Música**.
- 2 Hautatu musika-kategoria bat > musika-fitxategi bat.
- 3 Erabili ikono hauek erreprodukzioa kontrolatzeko:

Ikonoa	Funtzioa
	Erreprodukzioa eteteko; hautatu  erreprodukzioa berrabiarazteko.
	Aurreko fitxategira joateko edo fitxategian bertan atzera egiteko (luze sakatuta)
	Hurrengo fitxategira joateko, edo fitxategi berean aurrera egiteko (luze sakatuta).
	Ausazko erreprodukzioaren modua aktibatzeke.
<b>NORM</b>	Ekualizadore-mota aldatzeko.

Ikonoa	Funtzioa
	Errepikapen-modua aldatzeko (desaktibatzea, fitxategi bat errepikatzea edo fitxategi guztiak errepikatzea).

1. Erreproduzitzailearen pantaila sakatzean agertzen dira ikono horiek.

## » Erreprodukzio-zerrenda bat sortzea

- 1 Menuen moduan, hautatu **Música**.
- 2 Hautatu **Listas de reproducción > Crear**.
- 3 Idatzi erreprodukzio-zerrendarentzako izenburu bat, eta sakatu **Finalizado**.

Erreprodukzio-zerrendari irudi bat esleitzeko, hautatu erreprodukzio-zerrendako irudia, eta hautatu irudi bat edo atera beste argazki bat.

- 4 Hautatu **Guardar**.
- 5 Hautatu beste erreprodukzio-zerrenda bat.

## 6 Hautatu **Añadir > Pistas.**

Beste erreprodukzio-zerrenda bateko musika-fitxategi guztiak eransteko, hautatu **Listas de reproduccion**, eta, gero, hautatu erreprodukzio-zerrenda bat.

## 7 Hautatu zerrendan sartu nahi dituzun programak, eta gero, hautatu **Añadir.**

## Musika bilatzea

Ikasi lineako musika-zerbitzu batera sartzen, abesti bati buruzko informazioa eskuratzeko.



- Zenbait zerbitzu-hornitzailek ez dute zerbitzu hori eskaintzen.
- Baliteke datu-basean abesti guztiei buruzko informazioa ez egotea.

- 1 Menuen moduan, hautatu **Buscar música.**
- 2 Hautatu **Buscar música** zerbitzarira konektatzeko.
- 3 Hautatu konexio-profil bat.

- 4 Telefonoa behar bezala erregistratzen denean, hautatu ● abesti baten zati bat grabatzeko.
- 5 Jarraitu pantailako argibideei grabaketa musika-informazioaren zerbitzarira bidaltzeko.

## FM irratia

Ikas ezazu musika eta berriak FM irratian entzuteko modua. FM irratia entzuteko, gailuarekin batera emandako entzungailuak konektatu behar dira, irrati-antena gisa funtzionatzen baitute.






### › FM irratia entzutea

- 1 Konektatu telefonoarekin batera etortzen diren entzungailuak.
- 2 Menuen moduan, hautatu **Radio FM.**
- 3 Sakatu ► FM irratia pizteko.
- 4 Hautatu Sí sintonizazio automatikoa hasteko. FM irratia automatikoki bilatzen eta gordetzen ditu eskuragarri dauden irrati-kateak.



FM irratia lehen aldiz pizten duzunean, sintonizazio automatikoa hasteko eskatuko dizu.

5 Erabili ikono hauek FM irratia kontrolatzeko:

Ikonoa	Funtzioa
	Gogokoen zerrendara sartzeko.
	FM irratia itzaltzeko. Hautatu  FM irratia pizteko.
	Maiztasuna 0,1 MHz aldatzeko. Erabilgarri dagoen irradi-emisora bat bilatzen du (luze sakatu).
	Soinuaren irteera aldatzeko (entzungailuetatik edo telefonoaren bozgorailutik).

FM irratan entzuten ari zaren abesti bati buruzko informazioa eskuratzeko, hautatu **Más > Buscar música**. ► p. 44

Irrati-emisora gogokoenen zerrendari gehitzeko, hautatu **Añadir a Favoritos**.

## ► Irrati-kateak automatikoki gordetzea

- 1 Konektatu telefonoarekin batera etortzen diren entzungailuak.
- 2 Menuen moduan, hautatu **Radio FM**.
- 3 Hautatu **Más > Sintonización automática**.
- 4 Sakatu Sí berresteko (beharrezkoa bada).  
FM irratia automatikoki bilatzen eta gordetzen ditu eskuragarri dauden irradi-kateak.

## Jokoak

Ikas ezazu Java teknologia sarituaren jokoak eta aplikazioak erabiltzen.



Baliteke Java jokoak eta aplikazioak deskargatzea bateragarria ez izatea, telefonoak duen software-motaren arabera.

## » Jokoak edo aplikazioak deskargatzea

1 Menuen moduan, hautatu **Juegos > Más juegos**.

Zerbitzu-hornitzaileak aurrez definitutako webgunera konektatuko da telefonoa.

2 Bilatu aplikazio bat edo joko bat, eta deskargatu telefonora.



Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

## » Jokoein jolastea edo aplikazioak abiaraztea


1 Menuen moduan, hautatu **Juegos**.

2 Hautatu joko bat edo aplikazio bat zerrendatik eta segitu pantailako jarraibideei.

Sakatu **Más** aplikatzeko aukera eta konfigurazio ugariko zerrendara sartzeko.



- Eskuragarri dauden jokoak edo aplikazioak aldatu egin daitezke zerbitzu-hornitzailearen edo zu zauden eremuaren arabera.
- Kontrolak eta joko edo aplikazioen aukerak aldatu egin daitezke.



# Informazio pertsonala

## Kontaktuak

Ikas ezazu nola sortu eta nola kudeatu telefonoaren memorian, SIM txartelean edo USIM txartelean gordetako kontaktu pertsonalen edo komertzialen kontaktuen zerrenda bat. Aukera izango duzu izenak, telefono mugikorretako eta finkoetako zenbakiak, helbide elektronikoak, urtebetetzeak eta kontaktuei buruzko informazio gehiago gordetzeko.

### › Kontaktu bat sortzea


- 1 Modu inaktiboan, hautatu **Contactos > Crear contacto**.
- 2 Hautatu **Teléfono** edo **SIM**.
- 3 Idatzi kontaktuaren informazioa.




Kontaktua SIM edo USIM txartelean gorde nahi baduzu, kontaktuaren izena eta telefono-zenbakia soilik gordetzeko aukera izango duzu.

- 4 Hautatu **Guardar** memorian kontaktu bat gehitzeko.

Markatzeko pantailatik ere sor dezakezu kontaktu bat.

- 1 Modu inaktiboan, sakatu **Teclado**, eta idatzi telefono-zenbakia.
- 2 Hautatu  > **Añadir a Agenda > Nuevo**.
- 3 Hautatu **Teléfono** edo **SIM**.
- 4 Idatzi kontaktuaren informazioa.
- 5 Hautatu **Guardar** memorian kontaktu bat gehitzeko.

### › Kontaktu bat bilatzea

- 1 Modu inaktiboan, hautatu **Contactos**.
- 2 Hautatu bilaketa-eremua, idatzi bilatu nahi duzun izenaren lehen letrak, eta hautatu **Finalizado**. Bestela,  arrastatu dezakezu, izenaren lehen letra hautatzeko.
- 3 Hautatu kontaktuen zerrendan nahi duzun kontaktuaren izena. Kontaktua aurkitu ondoren, aukera hauek dituzu:



- Hautatu  >  kontaktuari deitzeko
- Hautatu **Editar** kontaktuaren informazioa editatzeko.

## » Gogoko zenbaki bat zehaztea

- 1 Modu inaktiboan, hautatu **Contactos**.
- 2 Hautatu **Contactos** goitibeherako zerrendan, eta sakatu **Favoritos**.
- 3 Hautatu kokaleku-zenbaki bat > kontaktu bat.

Gogoko zenbakien zerrendan gordeko da kontaktua.



- Gogoko zenbakia zehaztu ondoren, kontaktu horri dagokion kokaleku-zenbakia markatzeko pantailan luze sakatuta markatu dezakezu.
- Lehen bost gogoko zenbakiak widget-en tresna-barrako gogoko kontaktuei esleituko zaizkie.

## » Kontaktu-talde bat sortzea

Kontaktu-talde bat sortzean, aukera duzu zenbait kontaktu kudeatu eta talde osoari mezuak edo mezu elektronikoak bidaltzeko. Hasteko, sortu talde bat.

- 1 Modu inaktiboan, hautatu **Contactos**.
- 2 Hautatu **Contactos** goitibeherako zerrenda, eta sakatu **Grupos**.

- 3 Hautatu **Crear grupo**.
- 4 Hautatu izen bat, deiaren identifikazio-argazki bat, melodia bat eta bibrazio-mota bat taldearentzat.
- 5 Hautatu **Guardar**.

## » Markaketa finkoko zenbakien zerrenda bat sortzea (FDN)

Irteerako deiak mugatzen dituen markaketa finkoko zenbakien moduan (FDN) erabiltzeko kontaktu-zerrenda bat konfiguratu dezakezu (SIM edo USIM txartelak funtzio hori onartzen badu). FDN-ren zerrenda SIM edo USIM txartelean gordeko da.

- 1 Modu inaktiboan, hautatu **Contactos > Más > Contactos de números de marcación fija**.
- 2 Hautatu **Crear FDN**.
- 3 Sartu SIM edo USIM txartelarekin batera emandako PIN 2 kodea, eta hautatu **Confirmar**.
- 4 Idatzi kontaktuaren informazioa.
- 5 Hautatu **Guardar**.

Aktibatu FDN modua, FDN zerrendan gordetako zenbakietara irteerako deiak mugatzeko. ► 32 or.



## Egutegia

Ikasi eguneroko, asteroko eta hileroko gertaerak sortzen eta kudeatzen.

### » Gertaera bat sortzea

- 1 Menuen moduan, hautatu **Calendario**.
- 2 Hautatu **Crear** > gertaera-mota bat.
- 3 Idatzi gertaerari buruzko informazioa, beharrezkoa dena.
- 4 Hautatu **Guardar**.

### » Gertaerak ikustea

Egutegiaren ikuspegia aldatzeko:

- 1 Menuen moduan, hautatu **Calendario**.
- 2 Hautatu **Más** > **Ver por día**, **Vista por semana** edo **Ver por mes**.

Data zehatz bateko gertaerak ikusteko:

- 1 Menuen moduan, hautatu **Calendario**.
- 2 Hautatu data bat egutegian. Egutegian, hiruki bat agertuko da planifikatutako gertaerak dituzten egunetan.
- 3 Hautatu gertaera bat xehetasunak ikusteko.

Gertaerak motaren arabera bistaratzeko:

- 1 Menuen moduan, hautatu **Calendario**.
- 2 Hautatu **Lista de eventos** > gertaera-mota bat.
- 3 Hautatu gertaera bat xehetasunak ikusteko.

## Gertaerak

Ikasi gertaera birtualen zerrenda bat sortzen eta gertaeretara garrantzitsuetarako edo lehentasunak ezartzeko gogorarazpen-alarinak sortzen.

### » Gertaera bat sortzea

- 1 Menuen moduan, hautatu **Tarea**.
- 2 Hautatu **Crear tarea**.

3 Idatzi zereginaren xehetasunak.  
Ezarpen xeheak eransteako, hautatu **Definir detalles**.

4 Hautatu **Guardar**.

### › Gertaerak ikustea

- 1 Menuen moduan, hautatu **Tarea**.
- 2 Goitibeherako menuan, hautatu **Prioridad**, eta hautatu gertaerak sailkatzeko kategoria bat (lehentasuna, egoera edo data).
- 3 Hautatu gertaera bat xehetasunak ikusteko.



Mugaeguna igaroa duten eta burututa dauden gertaeretan burututa egoera zehaztu dezakezu. Ez duzu beste gogorazpenik jasoko gertaera horietarako.

## Oharrak

Ikas ezazu informazio garrantzitsua grabatzen, gordetzeko eta aurrerago ikusteko.

### › Oharra sortzea

- 1 Menuen moduan, hautatu **Notas**.
- 2 Hautatu **Crear nota**.
- 3 Idatzi oharraren testua eta sakatu **Finalizado**.

### › Oharrak ikustea


- 1 Menuen moduan, hautatu **Notas**.
- 2 Hautatu ohar bat xehetasunak ikusteko.

## Ahots-grabagailua

Ikas ezazu zure telefonoko ahots-grabagailua erabiltzen. Ahots-oharrak dei-melodia gisa edo alarma gisa defini ditzakezu.


### > Ahots-ohar bat grabatzea

- 1 Menuen moduan, hautatu **Grabad voz**.
- 2 Hautatu ● grabatzen hasteko.
- 3 Hitz egin mikrofonotik hurbil.

- 4 Amaitutakoan, aukeratu  .  
Zure ahots-oharra automatikoki gordeko da.
- 5 Ahots-ohar gehiago grabatzeko, hautatu **Grabar**, eta errepikatu 2-4 urratsak.

### » Ahots-ohar bat erreproduzitzea

- 1 Menuen moduan, hautatu **Grabad voz**.
- 2 Hautatu **Mis clips** de voz ahots-oharren zerrendara sartzeko.
- 3 Hautatu ahots-ohar bat.
- 4 Kontrolatu erreprodukzioa pantailako teklen bidez.



# weba

## Internet

Ikas ezazu webguneetara sartzen eta gogokoei gehitzen.



- Baliteke kargu gehigarriak ordaindu behar izatea Interneten sartu edo multimedia-edukia deskargatuz gero. Xehetasun gehiago jakiteko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.
- Web-nabigatzailearen menuak izen bat edo beste bat izan dezake, zerbitzu-hornitzailearen arabera.
- Eskuragarri dauden ikonoak aldatu egin daitezke zerbitzu-hornitzailearen edo zu zauden eremuaren arabera.

### › Interneteko profila konfiguratzeko




Sarean sartu eta Internetera konektatzeko, konexio-profil bat aktibatu behar duzu. Zure zerbitzu-hornitzaileak aurrez zehaztutako profitez gain, zure konexio-profila gehitu dezakezu.

- 1 Menuen moduan, hautatu **Navegador > Ajustes -Perfiles de Internet**.
- 2 Hautatu **Crear**.
- 3 Pertsonalizatu sarearen ezarpenak.

### › Webguneetan nabigatzea

- 1 Menuen moduan, hautatu **Navegador > Inicio**, hasierako orri jakin bat irekitzeko.  
Web-orri jakin batera sartzeko, hautatu **Introducir URL**, idatzi web-orriaren helbidea, eta hautatu **Ir**.
- 2 Erabili ikono hauek web-orrietan nabigatzeko:

Ikonoa	Funtzioa
	Historiako web-orrietan aurrera edo atzera egiteko.
	Uneko web-orria eguneratzeko.
	Ikuspegiaren modua aldatzeko.

Ikonoa	Funtzioa
	Gordetako gogokoenen zerrenda irekitzeko.
	Pantailako orientazioa aldatzeko.
	Nabigatzailearen aukera-zerrenda batera joateko.

### > Gogoko web-orriak markatzea

Maiz bisitatzen dituzun web-orriak gogokoenen zerrendan erants ditzakezu, orri horietara azkar sartzeko. Interneten nabigatzen ari zarela, hautatu  > **Añadir a favoritos** uneko web-orria gogokoenen zerrendan eransteko.

Web-orri baten helbidea ezagutzen baduzu, gogoko bat eskuz eta konexiorik gabe sar dezakezu. Gogoko bat eransteko:

- 1 Menuen moduan, hautatu **Navegador > Favoritos**.
- 2 Hautatu **Añadir**.
- 3 Idatzi orri baten izenburua eta web-helbidea (URL).
- 4 Hautatu **Guardar**.

## RSS irakurgailua

Ikas ezazu RSS irakurgailua zure gogoko webguneetako azken albisteak irakurtzeko erabiltzen.

### › RSS iturriaren helbide bat gehitzea

- 1 Menuen moduan, hautatu **Navegador > Fuente RSS**.
- 2 Hautatu **Añadir**.
- 3 Idatzi RSS iturri baten helbidea, eta hautatu **Finalizado**.

### › RSS iturriak eguneratzea eta irakurtzea

- 1 Menuen moduan, hautatu **Navegador > Fuente RSS**.
- 2 Hautatu **Actualiz > Feeds > Actualizar > Sí**.
- 3 Hautatu iturri-kategoria bat > iturri eguneratu bat.



Eguneratze automatikoen funtzioak telefona konfiguratzeko du RSS iturria automatikoki eguneratzeko zehaztutako denbora-tarteetan. Automatikoki eguneratzeko funtzioa aktibatzeke, hautatu **Navegador > Ajustes > Actualización de RSS**. Automatikoki eguneratzeko funtzioa aktibatzeak handitu egiten du deskargatutako datuen kopurua, eta baliteke kargu gehigarriak kobratzea.

## Samsung Apps

Ikasi zenbait multimedia-fitxategi deskargatzen (esaterako, pantailaren atzealdeko irudiak, melodiak, jokoak, musika eta bideoklipak) Samsung Apps WAP site gunean.

- 1 Menuen moduan, hautatu **Samsung Apps**.
- 2 Bilatu multimedia-fitxategiak, eta deskargatu telefonoan zuki nahi duzun bezala.



Eskubide digitalen administrazioaren sistema dela eta (DMR, Digital Rights Management) gerta daiteke lizentziagako bat behar izatea Internetetik deskargatutako edo multimedia-mezuetan jasotako multimedia-elementu batzuetara sartzeko. Edukiaren eskubideak dituen webgunean eskuratu dezakezu gakoak.

## Google

Ikasi Google-ren zerbitzuak erabiltzen: bilaketa, posta, mapa-zerbitzuak...



- Baliteke zerbitzu hori erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.
- Funtzio hau erabiltzeko eman beharreko pausuak aldatu egin daitezke herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

## » Google-ren bilaketa-zerbitzua erabiltzea

- 1 Menuen moduan, sakatu **Google > Buscar**.
- 2 Hautatu bilaketa-eremua.
- 3 Sartu gako-hitza eta hautatu **Buscar**.

## » Google Mail zerbitzua erabiltzea

Google Mail-eko zure kontura sartu eta posta elektronikoko mezuak bidali edo idatzi ditzakezu zure telefonoan.

- 1 Menuen moduan, hautatu **Google > Correo electrónico**.
- 2 Sartu zure erabiltzailearen IDa eta pasahitza, eta, gero, hasi saioa.
- 3 Bidali edo jaso mezu elektronikoak.

## » Google Maps zerbitzua erabiltzea

- 1 Menuen moduan, sakatu **Google > Maps**.
- 2 Mugitu mapan.
- 3 Hurbildu edo urrundu nahi duzun kokapena.

## Sinkronizatu

Ikas ezazu zehaztutako web-zerbitzariarekin kontaktuak, egutegiko gertaerak, zereginak eta oharrak sinkronizatzen.

### » Sinkronizazio-profila konfiguratzea

- 1 Menuen moduan, hautatu **Sincronizar**.
- 2 Hautatu **Añadir**, eta zehaztu profilaren aukerak:
- 3 Amaitutakoan, hautatu **Guardar**.

### » Sinkronizazioa abiaraztea

- 1 Menuen moduan, hautatu **Sincronizar**.
- 2 Hautatu sinkronizazio-profil bat.
- 3 Hautatu **Continuar**, zehaztutako web-zerbitzariarekin sinkronizazioa hasteko.

## ActiveSync

Ikasi datu pertsonalak sinkronizatzen (mezu elektronikoak, kontaktuak, egutegiko gertaerak eta zereginak) zure telefonoaren eta Microsoft Exchange zerbitzariaren edo Google-ko kontu baten artean.



- Google Sync-ek ez du onartzen zereginak sinkronizatzea.
- Microsoft Corporation-en lizentzia duten zerbitzuekin soilik erabil dezakezu Microsoft Exchange ActiveSync® funtzioa.
- Baliteke zerbitzarira sartzeagatik kargu gehigarriak ordaindu behar izatea.

### » Profil bat eta Microsoft Exchange zerbitzari bat konfiguratzeko

- 1 Menuen moduan, hautatu **ActiveSync**.
- 2 Zehaztu Microsoft Exchange zerbitzariaren ezarpenak.
- 3 Hautatu **Guardar**.
- 4 Hautatu posta elektronikora konektatzeko profil bat.
- 5 Amaitutakoan, hautatu **Guardar**.

- 6 Hautatu sinkronizazio-profil bat.

Zehaztutako Microsoft Exchange-kiko sinkronizazioa hasiko da.

### » Sinkronizazioa abiaraztea

Datu-mota bakoitzarentzako sinkronizazioaren ezarpenak konfiguratu ondoren, Exchange zerbitzariaren datuak sinkroniza ditzakezu (datu guztiak aldi berean edo soilik posta elektronikoak).

Elementu guztiak sinkronizatzeko:

- 1 Menuen moduan, hautatu **ActiveSync**.
- 2 Hautatu **Sincronizar**.



Elementu guztiak sinkronizatuz gero, baliteke kargu gehigarriak ordaindu behar izatea beharrezkoak ez diren elementuak eguneratzeagatik.

Posta elektronikoa soilik sinkronizatzeko:

- 1 Menuen moduan, hautatu **ActiveSync**.
- 2 Hautatu **Email > Buzón de entrada > Sincronizar > Email > Seleccionar**, edo hautatu **Buzón de salida > Sincronizar**.



## Sare sozialak

Ikasi zure argazki eta bideoak beste pertsona batzuekin partekatzen sare sozial eta blogetako webguneetan (esaterako, MySpace edo Facebook).



- Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.
- jpg eta mp4 formatuetan soilik kargatu ditzakezu fitxategiak Interneten.

### › Webgune edo blog gogokoenen zerrenda zehaztea

- 1 Menuen moduan, hautatu **Redes sociales**.
- 2 Hautatu **Sí**, webgune edo blog gogokoenen zerrenda konfiguratzeko (beharrezkoa bada).
- 3 Hautatu **Aceptar**, erantzukizunik ezaren oharra onartzen duzula berresteko.  
Menura sartzen zaren lehen aldian, berresteko eskatuko dizu.

- 4 Hautatu erantsi nahi duzun webgunea edo bloga, eta hautatu **Guardar**.

**Actualizar listas** hautatu baduzu, webgune edo blogak automatikoki gehituko dira zerrendara.

### › Fitxategi bat partekatzea

Argazkiak eta bideoak kargatzeko eta ikusteko, argazkiak partekatzeko kontuak izan behar dituzu webguneetan eta blogetan.

- 1 Menuen moduan, hautatu **Redes sociales**.
- 2 Hautatu **Cargado a la web**.
- 3 Hautatu sartu nahi duzun webgunea edo bloga
- 4 Sartu zure erabiltzailearen IDa eta pasahitza, eta, gero, hasi saioa.
- 5 Fitxategiak kargatzeko, hautatu **Toque para añadir**, eta hautatu multimedia-fitxategi bat.
- 6 Idatzi argitalpenaren xehetasunak, eta hautatu **Cargar**.

## Last.fm

Ikasi Last.fm-k eskaintzen dituen lineako musika-zerbitzuak erabiltzen. Zerbitzu honen bidez, hainbat artista eta gertaerei buruzko informazioa eskuratu dezakezu. Horrez gain, zerbitzuak musikaren datu-basea bilatuko du, eta abesti berriak iradokiko ditu, berriki entzun dituzun abestiak kontuan hartuta.

- 1 Menuen moduan, hautatu **Last.fm**.
- 2 Hautatu **OK** lege-informazioa irakurri duzula berresteko (beharrezkoa bada).
- 3 Sartu erabiltzailearen IDa eta pasahitza, Last.fm zerbitzuan saioa hasteko.



Last.fm-n konturik ez baduzu, erregistratu bat lortzeko.

- 4 Bilatu abesti edo gertaera berriak eta gogokoen dituzun artistei buruzko informazioa.

- 5 Hautatu **Selección de Last.fm** zure musika-erreproduzitzailean, entzuten ari zaren musikaren antzeko gomendioak eskuratzeko.



Erreproduzitzen den bitartean abestiaren izena erakusteko funtzioa aktibatuta baduzu, baliteke kargu gehigarriak kobratzea musika erreproduzitzeko.

# konektagarritasuna

## Bluetooth-a

Irismen laburreko haririk gabeko komunikazio-teknologia da Bluetooth-a. Horri esker, 10 metro (30 oin) inguruko distantzian informazioa trukatu daiteke, konexio fisikorik izan gabe.



- Samsung-ek du bere gain hartzen Bluetooth haririk gabeko funtzioaren bidez bidalitako edo jasotako datuak galtzearen, bidean atzematearen edo modu desegokian erabiltzearen ardura.
- Ziurtatu beti datuak partekatu eta jasotzeko erabiltzen dituzun gailuak konfiantzazkoak direla eta behar bezala doitu daudela. Gailuen artean oztopoak badaude, litekeena da distantzia operatiboa murriztea.
- Baliteke zenbait gailu, batez ere Bluetooth SIGek onartzen edo baimentzen ez dituztenak, telefonoarekin bateragarriak ez izatea.

## › Bluetooth haririk gabeko funtzioa aktibatzea

- 1 Menuen moduan, hautatu **Bluetooth**.
- 2 Hautatu **Activar** Bluetooth-a pizteko.



Beste gailuei telefonoa bilatzeko aukera emateko, hautatu **Más > Ajustes > Activar en Visibilidad de mi teléfono > ikusteko aukera bat > Guardar. Personalizar** hautatu baduzu, zehaztu telefonoa ikusteko moduan egongo den denbora.

## › Bluetooth-erako gaitutako beste gailuak bilatzea eta haiekin konektatzea

- 1 Menuen moduan, sakatu **Bluetooth > Buscar**.
- 2 Hautatu gailu bat.
- 3 Sartu Bluetooth haririk gabeko funtzioaren PINa edo beste gailuaren Bluetooth-aren PINa (baldin badu), eta hautatu **Finalizado**. Sí hauta dezakezu zure telefonoaren PINa gailuaren PINarekin bat etor dadin. Beste gailuaren jabeak PIN bera sartzen duenean, edo konexioa onartzen duenean, biak konektatuta egongo dira. Konexioa zuzen egiten bada, gailuak automatikoki bilatuko ditu eskura dauden zerbitzuak.

Telefonoa Bluetooth-erako gaituta dagoen beste gailu batekin konektatuta dagoenean, gailuaren ikonoa urdinez agertuko da. Hautatu konektatutako gailu bat, eta erabili aukera hauetakoren bat:

- Gailuko fitxategien direktorioan zehar mugitzeko eta fitxategiak partekatzeko, hautatu **Examinar archivos**.
- Gailuaren izena aldatzeko, hautatu **Cambiar nombre**.
- Gailua zure berrespenik gabe telefonora sartzea baimentzeko, hautatu **Autorizar dispositivo**.



Telefonoan erabilgarri dauden Bluetooth-eko zerbitzuak eta zerbitzu horiei buruzko informazioa kontsultatzeko, hautatu **Más > Servicios de Bluetooth**.

### › Bluetooth haririk gabeko funtzioaren bidez datuak bidaltzea

- 1 Hautatu fitxategi edo elementu bat (kontaktu bat, egutegiko gertaera bat, ohar bat, zeregin bat edo multimedia fitxategi bat, adibidez) dagokion aplikaziotik edo **Mis archivos** ataletik.

- 2 Hautatu **Enviar por > Bluetooth**, edo hautatu **Más > Enviar tarjeta de contacto mediante > Bluetooth**.

### › Bluetooth haririk gabeko funtzioaren bidez datuak jasotzea

- 1 Idatzi Bluetooth haririk gabeko funtziorako PINa eta sakatu **Aceptar** (beharrezkoa bada).
- 2 Hautatu **Sí** gailuaren datuak jaso nahi dituzula berresteko (beharrezkoa bada).

Jasotako datuak aplikazio egoki batean edo karpeta batean gordeko dira, datu-motaren arabera. Esaterako, musika- edo soinu-fitxategi bat soinu-karpetan gordeko da, eta kontaktu bat, berriz, kontaktuen kontaktu-agendan.

### › Bluetooth haririk gabeko funtzioaren bidez datuak inprimatzea

- 1 Hautatu fitxategi edo elementu bat (esaterako, mezu bat, kontaktu bat, egutegiko gertaera bat edo irudi bat) dagokion aplikaziotik.

- 2 Hautatu **Más > Imprimir por > Bluetooth**, edo hautatu **Más > Imprimir por Bluetooth**.
- 3 Bilatu Bluetooth-arekin bateragarria den inprimagailu bat, konexioa egiteko.
- 4 Konexioa egindakoan, pertsonalizatu inprimatzeko aukerak, eta inprimatu datuak

### » Urruneko SIM modua erabiltzea

Urruneko SIM modua erabilia, deiak egin edo erantzun ditzakezu autorako esku libreko Bluetooth kit bat konektatuta soilik, telefonoaren SIM edo USIM txartelaren bidez.

Urruneko SIM modua aktibatzeke:

- 1 Menuen moduan, hautatu **Bluetooth > Más > Ajustes**.
- 2 **Modo SIM remota > Guardar** aukeran, hautatu **Activar**.

Urruneko SIM modua erabiltzeko, hasi Bluetooth konexioa autorako esku libreko Bluetooth kit bat erabilia.

## PC konexioak

Ikas ezazu zure telefonoa PC bati konektatzen, PCrako datu-kable baten bidez eta USB konexio-modu bat baino gehiagorekin.

### » Samsung Kies-en bidez konektatzea

Egiaztatu Samsung Kies programa PCan instalatua duzula. Samsung-en web-orritik deskarga dezakezu ([www.samsungmobile.com](http://www.samsungmobile.com)).

- 1 Menduen moduan, hautatu **Ajustes > Teléfono > Conexiones de PC > Samsung Kies > Guardar**.
- 2 Inaktibo modura itzultzeko, sakatu pizteko/jitzaltzeko eta deiak amaitzeko tekla.
- 3 PCrako hautazko datu-kable batekin, konektatu telefonoaren funtzio anitzeko hartunea PC batera.
- 4 Exekutatu Samsung Kies, eta kopia datuak eta fitxategiak.

## » Gailua biltegitate masiboko gailu gisa konektatzea

Zure telefonoa PC batera konekta dezakezu, disko aldagarri bat bezala, eta fitxategien direktoria sar zaitezke. Memoria-txartel bat sartzen baduzu telefonoan, memoria-txartelen irakurle moduan ere erabil dezakezu telefonoa, memoria-txarteleko fitxategien direktoria sartzeko.

- 1 Memoria-txartetik edo txartelera fitxategiak transferitu nahi badituzu, sartu memoria-txartel bat telefonoan.
- 2 Menduen moduan, hautatu **Ajustes > Teléfono > Conexiones de PC > Almacenamiento masivo > Guardar**.
- 3 Inaktibo modura itzultzeko, sakatu pizteko/itzaltzeko eta deiak amaitzeko tekla.
- 4 PCrako hautazko datu-kable batekin, konektatu telefonoaren funtzio anitzeko hartunea PC batera.  
Konektatzean, leiho bat bistaratuko da ordenagailuan.
- 5 Ireki karpeta fitxategiak ikusteko.
- 6 Kopiatu PCko fitxategiak memoria-txartelean.

## » Windows Media-ren erreproduzitailearekin sinkronizatzea

Egiaztatu Windows Media Player programa PCan instalatua duzula.

- 1 Menduen moduan, hautatu **Ajustes > Teléfono > Conexiones de PC > Reproductor multimedia > Guardar**.
- 2 Inaktibo modura itzultzeko, sakatu pizteko/itzaltzeko eta deiak amaitzeko tekla.
- 3 PCrako hautazko datu-kable batekin, konektatu telefonoaren funtzio anitzeko hartunea Windows Media erreproduzitailea duen PC batera.  
Konektatzean, leiho bat bistaratuko da ordenagailuan.
- 4 Ireki Windows Media Player, musika-fitxategiak sinkronizatzeke.
- 5 Editatu edo idatzi zure telefonoaren izena bistaratuko den leihoan (beharrezkoa bada).
- 6 Hautatu nahi dituzun musika-fitxategiak, eta arrastatu sinkronizazio-zerrendara.
- 7 Hasi sinkronizatzen.

# tresnak

## Alarmak

Ikas ezazu alarmak konfiguratzeko eta kontrolatzeko gertaera garrantzitsuetarako.

### » Alarma berri bat zehaztea

- 1 Menuen moduan, hautatu **Alarmas**.
- 2 Hautatu **Crear alarma**.
- 3 Definitu alarmaren xehetasunak.
- 4 Amaitutakoan, hautatu **Guardar**.



Telefonoa itzalita badago, pizteko funtzio automatikoak ezartzen du telefonoa automatikoki piztu eta ezarritako orduan alarma jotzeko.

### » Alarma bat geldiaraztea

Alarmak jotzean:

- Hautatu **Parar**, alarma geldiarazteko.
- Hautatu **Repetir** errepikatzen ari denean alarma isilarazteko.

### » Alarma desaktibatzea

- 1 Menuen moduan, hautatu **Alarmas**.
- 2 Hautatu **Desactivar** aktibatuta nahi duzun alarman.

## Kalkulagailua

- 1 Menuen moduan, hautatu **Calculadora**.
- 2 Erabili pantailako kalkulagailuaren teklak oinarrizko matematika-eragiketarako.

## Bihurgailua

- 1 Menuen moduan, hautatu **Conversor** > bihurketa-mota bat.
- 2 Idatzi dibisak edo neurriak eta unitateak dagozkien eremuetan.

## Irudi-editorea

Irudiak editatu eta efektu dibertigarriak aplikatu ditzakezu.

### › Irudiei efektuak jartzea


- 1 Menuen moduan, hautatu **Editor de imágenes**.
- 2 Hautatu **Pulse aquí para abrir** > irudi bat.
- 3 Hautatu **Efectos** > efektu-aukera bat (iragazkia, estiloa, deformatzea edo zati bat lausotzea).
- 4 Hautatu aplikatu nahi duzun efektua eta sakatu **Aceptar**.  
Irudiaren eremu zehatz bat lausotzeko, marraztu laukizuzen bat, eta hautatu **Aceptar**.

- 5 Amaitutakoan, hautatu **Archivo** > **Guardar como**.
- 6 Hautatu memoriako kokaleku bat (beharrezkoa bada).
- 7 Sartu beste fitxategi-izen bat irudiarentzat, eta hautatu **Finalizado**.

### › Irudi bat doitzea

- 1 Ireki irudi bat editatzeko.
- 2 Hautatu **Ajustar** > doitzeko aukera bat (argitasuna, kontrastea edo kolorea).  
Irudia automatikoki doitzeko, hautatu **Nivelado automático**.
- 3 Doitu irudia nahi duzun bezala, eta hautatu **Aceptar**.
- 4 Gorde editatutako irudia beste fitxategi-izen batekin.


### › Irudi bat aldatzea

- 1 Menuen moduan, hautatu **Editor de imágenes**.
- 2 Hautatu gezia pantailaren behealdean, eskuinaldean.
- 3 Hautatu  biratzeko, edo  tamaina aldatzeko.







- 4 Biratu irudia edo aldatu irudiaren tamaina, eta hautatu **Aceptar**.
- 5 Gorde editatutako irudia beste fitxategi-izen batekin.

### › Irudi bat moztea

- 1 Ireki irudi bat editatzeko.
- 2 Hautatu gezia pantailaren behealdean, eskuinaldean.
- 3 Hautatu .
- 4 Mugitu laukizuzena edo aldatu tamaina moztu nahi duzun eremuaren gainean, eta hautatu **Aceptar** bi aldiz.
- 5 Gorde editatutako irudia beste fitxategi-izen batekin.

### › Ikusizko funtzio bat txertatzea

- 1 Ireki irudi bat editatzeko.
- 2 Hautatu gezia pantailaren behealdean, eskuinaldean.
- 3 Hautatu , ,  edo .
- 4 Hautatu ikuste-funtzio bat (argazki bat, aurpegiera bat edo irudi bat) edo sartu testua, eta hautatu **Finalizado**.

- 5 Mugitu ikuste-funtzioa edo aldatu tamaina, eta hautatu **Aceptar**.
- 6 Gorde editatutako irudia beste fitxategi-izen batekin.

## Nire fitxategiak

Ikas ezazu telefonoan edo memoria-txartelean gordeta dituzun irudi, bideo, musika, soinu-fitxategi eta bestelako fitxategietara azkar eta erraz sartzen.

### › Fitxategi bat ikustea

- 1 Menuen moduan, hautatu **Mis archivos** > fitxategi-mota bat. Memoria-txartelean gordetako karpetak edo fitxategiak memoria-txartelaren ikono batekin markatuko dira.
- 2 Hautatu karpeta bat > fitxategi bat.

Fitxategi bat ikustean, aukera hauek erabil ditzakezu:

- USB konexioarekin irudi bat inprimatzeko, hautatu **Más** > **Imprimir por** > **USB**.
- Bluetooth haririk gabeko funtzioaren bidez irudi bat inprimatzeko, hautatu **Más** > **Imprimir por** > **Bluetooth**.

- Irudi bat pantailaren atzealdean jartzeko, hautatu **Más > Definir como > Fondo de pantalla**.
- Soinu bat dei-tonu moduan zehazteko, jotzen ari den bitartean hautatu **Definir como > Tono de llamada** edo **Tono de videollamada**.

## Kronometroa

- 1 Menuen moduan, hautatu **Cronómetro**.
- 2 Hautatu **Iniciar**, kronometroa martxan jartzeko.
- 3 Hautatu **Vuelta**, itzulien denborak grabatzeko.
- 4 Amaitutakoan, aukeratu **Parar**.
- 5 Hautatu **Restablecer**, grabatutako denborak ezabatzeko.

## Tenporizadorea



- 1 Menuen moduan, hautatu **Temporizador**.
- 2 Zehaztu atzerako kontaketa iraupena.

- 3 Hautatu **Iniciar** atzerako kontaketa martxan jartzeko.  
Orain, beste funtzio batzuk erabil ditzakezu, eta kronometroak atzerako kontaketa bigarren mailan egiteko ezarri. Sakatu Atzera tekla edo pizteko/jitzaltzeko eta deiak amaitzeko tekla, eta sartu beste aplikazio batera.
- 4 Tenporizadoreak amaitzean, hautatu **Parar** alerta gelditzeko.

## Munduko erlojua

Ikas ezazu beste lurralde bateko ordua ikusten, eta munduko erlojuak pantailan ager daitezen konfiguratzeko.

### › Munduko erloju bat sortzea

- 1 Modu inaktiboan, sakatu **Reloj mundial**.
- 2 Hautatu  > **Añadir**.
- 3 Hautatu ordu-eremu bat.  
Erlojuan udako ordutegia aplikatzeko, hautatu .


- 4 Sakatu **Acceptar** munduko erlojua gordetzeko. Munduko erlojua bigarren erloju gisa konfiguraturia dago.
- 5 Munduko erloju gehiago eransteko, hautatu **Añadir**, eta errepikatu 3 eta 4 urratsak.

### » **Pantailari munduko erloju bat gehitzea**

Erloju dualaren widget-arekin, zure pantailan bi ordu-eremutako erlojuak ikus ditzakezu.

Munduko erlojuak sortu ondoren:

- 1 Modu inaktiboan, sakatu **Reloj mundial**.
- 2 Hautatu **Definir como reloj secundario**.
- 3 Erloju dualaren erlojuaren widget-ean erantsi nahi duzu munduko erlojua.
- 4 Hautatu **Definir**.



# ezarpenak

## Ezarpenak menura sartzea

- 1 Menuen moduan, hautatu **Ajustes**.
- 2 Hautatu ezarpen-kategoria bat, eta, gero, aukera bat.
- 3 Pertsonalizatu ezarpena, eta hautatu **Guardar** edo **Definir**.

## Telefonoaren profilak

Hautatu soinu-profil bat, erabiltzeko, edo pertsonalizatu profiletako soinu-aukerak nahi duzun moduan.

## Pantaila eta argiztapena

Sartu ezarpen hauetara eta alda itzazu, pantaila eta telefonoaren argiztapena kontrolatzeko.

- **Fondo de pantalla:** hautatu hasierako pantailarako atzealde bat.
- **Mi tema:** hautatu gaikako kolore bat menuaren pantailerako.
- **Widget:** hautatu tresna-barran erabilgarri egongo diren widget-ak.
- **Tipo de fuente:** hautatu letra-mota bat pantailako testuarentzat.
- **Mensaje de bienvenida:** editatu telefonoa pizten agertzen den ongietorri-mezua.
- **Brillo:** doitu pantailaren distira.
- **Tiempo de retroiluminación:** zehaztu pantailaren atzeko argiztapena itzali aurretik telefonoak itxaron behar duen denbora.

## Data eta ordua

Sartu ezarpen hauetara, eta aldatu, zure telefonoan data eta ordua agertzeko modua kontrolatzeko.

## Telefonoa

Sartu ezarpen hauetara eta alda itzazu, telefonoaren ezarpen orokorrak kontrolatzeko:

- **Idioma:** hautatu telefonoaren pantailan eta testua sartzeko erabiliko duzun hizkuntza.
- **Vibración al pulsar:** doitu pantaila ukitzean sortzen den bibrazioaren intentsitatea.
- **Calibración:** lerrokatu berriro ukipen-pantailaren sentsoreak zure sarrerekin.
- **Información de llamadas perdidas:** zehaztu sarrerako dei eta mezuetan deitzen duen pertsonaren izena agertzea nahi duzun ala ez.
- **Conexiones de PC:** zehaztu USB modu bat telefonoa ordenagailu batera konektatzean aktiba dadin. ► 61 or.
- **Ajustes de licencia:** pertsonalizatu lizentzia-gakoekin loturiko ezarpenak (esaterako, segimendua, iraungitze-alarma edo atzerrian egiten diren deskargak).

## Desblokeo adimenduna

Aktibatu trazuen bidez desblokeatzeko funtzioa. Karaktere jakin bat idaztean ukipen-pantaila eta teklak desblokeatzen ditu.

► 23 or.

## Ukipen-panela

Konfiguratu telefonoa denbora jakin batean telefonoa erabiltzen ez baduzu ukipen-pantaila eta teklak automatikoki blokeatzeko.

## Aplikazioak

Sartu ezarpen hauetara eta alda itzazu, telefonoaren aplikazioak kontrolatzeko:

- **Llamar:** pertsonalizatu dei-funtzioetako ezarpenak.
- **Mensajes:** pertsonalizatu mezu-funtzioetako ezarpenak.
- **Contactos:** pertsonalizatu kontaktuen ezarpenak.

- **Calendario:** pertsonalizatu egutegiaren ezarpenak.
- **Navegador:** hautatu Internetera sartzeko erabiliko den konexio-profila. ► 52 or.
- **Reproductor multimedia:** pertsonalizatu musika-erreproduzigailuiaren eta bideo-erreproduzigailuaren ezarpenak.

## Segurtasuna

Sartu ezarpen hauetara eta alda itzazu, zure telefonoa eta zure datuak babesteko:

- **Bloqueo del teléfono:** aktibatu edo desaktibatu telefonoaren blokeo-funtzioa, telefonoa erabili aurretik pasahitza eska dezan.
- **Bloqueo de SIM:** aktibatu edo desaktibatu SIM txartelaren blokeo-funtzioa, SIM edo USIM txartela aldatzean SIMaren pasahitza eska dezan.
- **Bloqueo de PIN:** aktibatu edo desaktibatu PINaren blokeo-funtzioa, telefonoa erabili aurretik PINa eska dezan.
- **Bloqueo de privacidad:** aldatu zenbait datu-motaren pribatutasuna. Datu pribatuetara sartzeko, telefonoaren pasahitza sartu behar duzu.

- **Modo de marcación fija:** aktibatu edo desaktibatu FDN modua, FDN zerrendako zenbakietarako deiak murrizteko.
- **Cambiar contraseña:** aldatu telefonoaren pasahitza.
- **Cambiar PIN:** aldatu SIM edo USIM txarteleko datuetara sartzeko erabiltzen duzun PINa.
- **Cambiar PIN2:** aldatu PIN nagusia babesteko erabiltzen den PIN 2 kodea.
- **Rastreador móvil:** aktibatu edo desaktibatu mugikor-bilatzailearen funtzioa (telefonoa galtzen bada edo lapurtzen badute non dagoen jakiteko balio du). ► 25 or.

## Sarea

Sartu ezarpen hauetara eta alda itzazu, telefonoak sareak hautatzeko eta sare horietara konektatzeko duen modua kontrolatzeko:

- **Seleccionar red:** zehaztu sarea eskuz edo automatikoki hautatzeko modua.
- **Modo de red:** hautatu sare-banda bat.
- **Conexiones:** konfiguratu ezarpen-profilak, sareko funtzioekin erabiltzeko.

- **Certificados:** bistaratu sareko zerbitzuetarako behar diren ziurtagiriak.
- **Redes preferidas:** konfiguratu sare-zerrenda bat zure hobespenean arabera. Erabilgarri dauden sareak aurkitzen dituenean, sare horietara konektatuko da telefonoa lehendabizi.

## Memoria

Sartu ezarpen hauetara eta aldatu itzazu, telefonoko memoriaren erabilera kontrolatzeko:

- **Borrar memoria:** ezabatu telefonoaren memorian hautatutako datuak.  
Aukera horrek betirako ezabatuko ditu telefonoaren memorian hautatutako datuak.
- **Detalles de tarjeta de memoria:** sartu memoria-txartelaren xehetasunetara, eta zehaztu memoria-txartelean gordetako fitxategien Bluetooth-aren ikusgarritasuna. Memoria-txartela formatea dezakezu edo izena alda diezaiokezu.

- **Memoria predeterminada:** hautatu memoria lehenetsiaren kokalekua, datuak transferitzeko, argazki eta bideoak ateratzeko edo ahots-oharrak grabatzeko.
- **Estado de memoria:** bistaratu zenbait fitxategi-motekin erabili duzun eta erabilgarri dagoen memoria.

## Ezarpenak leheneratzea

Berrezarri ezarpenak aurrez zehaztutako balioen arabera. Hautatu berrezarri nahi dituzun ezarpenak. Telefonoaren pasahitza sartu behar duzu ezarpenak berrezartzeko.

# Arazoen konponketa

**Gailua pizten duzunean edo erabiltzen ari zarenean, kode hauetako bat sartzeko eskatzen dizu:**

Kodea	Arazoa konpontzeko, saiatu hau egiten:
Pasahitza	Gailua blokeatzeko funtzioa aktibatuta badago, gailuari ezarri zenion pasahitza idatzi behar duzu.
PINa	Gailua lehen aldiz erabiltzean edo PIN kodearen eskaera aktibatuta dagoenean, SIM edo USIM txartelarekin batera emandako PIN kodea sartu behar duzu. Funtzio hori desaktibatuzeko, erabili <b>Bloqueo de PIN</b> menua.
PUK	SIM edo USIM txartela blokeatuta dago; normalean, PINa behin baino gehiagotan gaizki idazteagatik gertatzen da. Idatzi zerbitzu-hornitzaileak emandako PUK kodea.

Kodea	Arazoa konpontzeko, saiatu hau egiten:
PIN2a	PIN 2 kodea eskatzen duen menu batera sartzen bazara, SIM edo USIM txartelarekin emandako PIN 2 kodea sartu behar duzu. Xehetasun gehiago jakiteko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

**Gailuan “Servicio no disponible” edo “Error de red” mezua agertzen da**

- Seinale edo harrera ahula dagoen eremuetan, harrera gal daiteke. Joan beste leku batera, eta saiatu berriro.
- Aukera batzuetara ezin da sartu harpidetu gabe. Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

**Ukipen-pantailak geldo edo modu desegokian erantzuten du**

Gailuak aginduei zuzen erantzuten ez dien ukipen-pantaila badu, saiatu honekin:



- Kendu ukipen-pantailaren estalki babesleak. Baliteke estalki babesleak ez uztea gailuari aginduak ezagutzen, eta ez da gomendatzen halako estalkien erabilera ukipen-pantailak dituzten gailuetan.
- Egiaztatu eskuak garbi eta lehor dituzula ukipen-pantaila ukitzean.
- Berrabiarazi gailua softwarearen uneko erroreak erazteko.
- Egiaztatu gailuaren softwarea bertsio berrienekin eguneratua dagoela.
- Ukipen-pantaila marratua edo kaltetua badago, eraman ezazu Samsung-en zerbitzu teknikoen zentro batera.

## Deiak deskonektatu egiten dira

Seinale edo harrera ahula dagoen eremuetan, sarerako konexioa gal daiteke. Joan beste leku batera, eta saiatu berriro.

## Ezin da irteerako deirik egin

- Egiaztatu markaketa-tekla sakatu duzula.
- Ziurtatu sare mugikor egokian sartzen ari zarela.
- Ziurtatu markatu nahi duzun telefono-zenbaki hori ez duzula jarri deiak murrizteko aukeran.

## Ezin da deirik jaso

- Ziurtatu gailua piztuta dagoela.
- Ziurtatu sare mugikor egokian sartzen ari zarela.
- Ziurtatu telefono-zenbaki hori ez duzula jarri deiak murrizteko aukeran.

## Solaskideak ezin zaitu entzun deia egitean

- Ziurtatu ez zarela ari mugikorraren mikrofonoa estaltzen.
- Ziurtatu mikrofonoa zure ahotik hurbil dagoela.
- Entzungailuak erabiltzen badituzu, ziurtatu behar bezala konektatuta daudela.

## Soinuaren kalitatea txarra da

- Egiaztatu ez duzula blokeatzen gailuaren barmeko antena.
- Seinale edo harrera ahula dagoen eremuetan, harrera gal daiteke. Joan beste leku batera, eta saiatu berriro.

## Ezin da deirik egin kontaktuetatik markatzean

- Ziurtatu kontaktuen zerrendan gordetako telefonoa zuzena dela.
- Behar izanez gero, idatzi eta gorde berriro zenbakia.
- Ziurtatu kontaktuaren telefono-zenbaki hori ez duzula jarri deiak murrizteko aukeran.

## Gailuak soinu bat egiten du, eta bateriaren ikonoa keinuka ari da

Materia-maila baxua du. Kargatu bateria edo jarri beste bat gailua erabiltzen jarraitzeko.

## Bateria ez da behar bezala kargatzen edo gailua itzali egiten da

- Baliteke bateriaren terminalak zikinak egotea. Garbitu urre koloreko kontaktuak zapi garbi eta leun batekin, eta saiatu bateria berriro kargatzen.
- Bateria osoa kargatzen ez bada, bota bateria zaharra behar bezala eta jarri berri bat (kontsultatu tokiko arauak behar bezala botatzeko).

## Zure gailua beroa dago

Gailua berotu egin daiteke gailuaren aplikazioak denbora luzez erabiltzen badira edo energia gehiago behar duten aplikazioak erabiltzen badira. Hori normala da, eta ez luke eraginik izan behar telefonoaren bizitza erabilgarrian edo errendimenduan.

# Erabilerari eta segurtasunari buruzko informazioa

Bete neurri hauek egoera arriskutsuak edo ilegalak saihesteko eta gailuaren errendimendua ahalik eta handiena izatea bermatzeko.



## Segurtasunari buruzko oharrak

### Ez utzi gailua haurren eta etxeko animalien eskueran.

Ez utzi telefonoa eta haren osagarriak haurren eta animalien eskueran. Pieza txikiek asfixia edo zauri larriak eragin ditzakete, irentsiz gero.

### Babestu entzumena



Soinuen gehiegizko bolumen-mailak entzumenari kalte egin diezaioke. Jaitsi bolumena entzungailuak audio-iturri batera konektatu aurretik, eta erabili bolumen minimoa musika edo elkarrizketa entzuteko.

### Kontuz instalatu gailu mugikorrak eta gainerako tresnak

Ziurtatu gailu mugikor osoa eta zure ibilgailuak instalatutako lotutako tresnak modu zurrean muntatuta daudela. Ez jarri gailua eta osagarriak airbag-etik gertu edo airbag-a zabaltzen den tokian. Ibilgailuetarako haririk gabeko ekipoa behar bezala instalatzen ez bada eta airbaga ireki egiten bada, lesio larriak sor daitezke.

## Kontuz erabili eta bota bateriak eta kargagailuak

- Samsung-ek onartutako eta bereziki gailuarentzat diseinatutako bateriak eta kargagailuak soilik erabili. Bateragarriak ez diren bateriek eta kargagailuek kalte larriak eragin diezazkiokete gailuari.
- Inoiz ez bota bateriak edo gailuak sutara. Tokian tokiko arauen arabera bota erabilitako bateriak edo gailuak.
- Ez jarri bateriak edo gailuak beroa sortzen duten gailuen gainean edo barruan, hala nola mikrouhin labeen, berogailuen edo erradiadoreen gainean edo barruan. Bateriak lehertu egin daitezke gehiegi berotuz gero.
- Inoiz ez zanpatu edo zulatu bateria. Ez jarri bateria atmosfera-presio handia dagoen lekuetan; barneko zirkuitu elektronikoak kaltetu edo gehiegi berotu daiteke.

## Saiatu taupada-markagailuekin interferentziarik ez sortzen

Utzi gutxienez 15 cm-ko (6 hazbeteko) distantzia gailu mugikorren eta taupada markagailuen artean, interferentziarik egon ez dadin, fabrikatzaileen eta Wireless Technology Research ikerketa-talde independentearen gomendioei jarraituz. Gailuak taupada-markagailu batean edo beste ekipo medikoren batean interferentziak sortzen dituen zalantza baduzu, itzali gailua berehala eta jarri harremanetan taupada-markagailuaren edo ekipo medikoaren fabrikatzailearekin laguntza eskatzeko.

## Itzali gailua lehergaiak egon daitezkeen inguruetan

Ez erabili gailua gasolindegietan (zerbitzugunea), ez eta erregai edo produktu kimikoetatik gertu ere. Itzali gailua ohar-jarraibideek edo -seinaleek hala adierazten dutenean. Gailuak leherketak edo suteak eragin ditzake erregaiak eta produktu kimikoak gordetzeko eremuetan eta leherketa-eremuetan edo haien inguruan. Ez biltegiratu eta ez eraman suak har dezakeen likidorik, gasik edo leher daitezkeen materialik, gailua eta haren piezak edo osagarriak doazen leku berean.

## Murriztu itzazu behin eta berriro mugimendu bera egiteagatik sortutako lesioak

Gailua erabiltzean, eutsi eskua erlaxatuta duzula, kontuz sakatu teklak, erabili tekla gutxiago sakatzeko teklak (adibidez, txantiloak eta testu prediktiboa) eta maiz hartu atsedena.

## Ez erabili gailua, pantaila pitzatuta edo hautsita badago

Hautsitako kristalak edo akrilikoak zauriak eragin ditzake aurpegian eta eskuan. Eraman gailua Samsung-en zerbitzu-zentro batera, pantaila alda diezaioten. Gailua arretarik gabe erabiltzeak eragindako kalteek fabrikatzailearen bermea baliogabetu egiten dute.



## Segurtasun-neurriak

### Arretaz gidatu beti

Ez erabili gailua gidatzen ari zarela, eta bete gidatzean gailua erabiltzea debekatzen duten arau guztiak. Ahal duzun guztietan, erabili esku libreko osagarriak segurtasun handiagoa izateko.

### Bete segurtasuneko arau eta ohar guztiak

Bete zenbait eremutan mugikorrek erabiltzea debekatzen duten arau guztiak.

### Erabili beti Samsung-ek baimendutako osagarriak

Bateragarriak ez diren osagarriak erabiliz gero, zure gailua kaltetu daiteke, edo zeu zauritu zaitezke.

## Itzali gailua ekipo medikoetatik gertu zaudenean

Gailuak interferentziak sor ditzake ospitaleetako osasuna zaintzeko zentroetako tresna medikoetan. Bete araudiak, argitaratutako ohartarazpenak eta pertsonal medikoak emandako jarraibideak.

## Itzali gailua edo desaktibatu haririk gabeko funtzioak hegazkinean zoazela

Gailuak interferentziak sor ditzake hegazkinaren tresnerian. Bete hegazkin-konpainiaren arau guztiak eta itzali zure gailua edo jarri haririk gabeko funtzioak desaktibatutako moduan, hegazkin-konpainiako langileek hala adierazten badute.

## Saiatu bateriek eta kargagailuek kalterik izan ez dezaten

- Ez jarri bateriak tenperatura hotzegiak edo beroegiak dauden lekuetan (0 °C-tik beherakoak edo 45 °C-tik gorakoak).
- Muturreko tenperaturek gailua deformatzea eragin dezakete, eta kargatzeko gaitasuna eta baterien bizitza erabilgarria

murritz dezakete.

- Saiatu bateriak ez daitezen egon metalezko objektuekin kontaktuan; baterien + eta – terminalen konexioa sortu, eta betirako edo aldi baterako kaltea eragin daiteke.
- Ez erabili hondatutako kargagailu edo bateria bat.

## Kontuz eta arretaz erabili gailua

- Ez desmuntatu gailua, elektrokutatze arriskua baitago.
- Gailua ez da busti behar: likidoek kalte larriak eragin ditzakete, eta urak gailuaren barruan eragindako kalteak adierazteko etiketaren kolorea aldatu egingo da. Ez ukitu gailua eskuak bustita dituzula. Urak eragindako kalteak direla eta fabrikatzailearen bermea bertan behera gelditu daiteke.
- Ez erabili edo gorde gailua eremu zikinetan edo hautsa dagoen eremuetan, pieza mugikorrek kaltetu ez daitezen.
- Gailu elektronikoa konplexuz osatuta dago telefonoa; beraz, babestu ezazu kolpeetatik eta manipulazio zakarretatik, kalte larriak eragiteko.
- Ez margotu gailua; pinturak zati mugikorrek blokeatzen baditu ez dute behar bezala funtzionatuko.

- Gailuak kamerako flasha edo argia badu, ez erabili haurren eta animalien begietatik gertu.
- Eredu magnetikoetatik hurbil, gailua kaltetu egin daiteke. Ez erabili itxiera magnetikoak dituzten kutxatila edo osagarriak, eta ez utzi gailua eremu magnetikoekin kontaktuan denbora luzez.

## Saihestu beste ekipo elektronikoekin interferentziak izatea

Gailuak irati-maiztasuneko seinaleak igortzen dituzte, eta horiek interferentziak eragin ditzakete babestu gabeko edo gaizki babestutako gailuetan, esaterako, taupada-markagailuetan, audifonoetan, etxeetako edo ibilgailuetako ekipo medikoetan. Jarri harremanetan ekipo medikoen fabrikatzailearekin interferentzia-arazoak konpontzeko.



## Erabilerari buruzko informazio garrantzitsua

### Ez erabili gailua ohiko posizioan ez bada

Saiatu gailuaren barneko antenarekin kontakturik ez izaten.

### Langile adituei soilik utzi gailuaren mantentze-lanak egiten

Adituak ez diren langileek gailuaren mantentze-lanak eginez gero, telefonoa kaltetu daiteke, eta bermea bertan behera utzi.

### Saiatu bateriak eta kargagailuak ahalik eta bizitza erabilgarri luzeena izan dezaten

- Ez kargatu bateriak astebetez baino gehiagoz; gainkargak iraupena murriztu dezake.
- Denborak aurrera egin ahala, erabili gabeko bateriak deskargatu egingo dira, eta berriro kargatu behar dira erabili aurretik.

- Erabili behar ez direnean, deskonektatu kargagailuak energia-iturrietatik.
- Erabili bateria diseinatutako helbururako bakarrik.

### Kontuz erabili SIM txartelak eta memoria-txartelak

- Ez kendu txartelik gailua informazioa transferitzen edo erabiltzen ari dela; datuak gal daitezke edo/jeta txartela edo telefonoa kaltetu.
- Babestu txartelak kolpe bortitzetatik, elektrizitate estatikotik eta beste ekipo batzuek eragindako zarata elektrikotik.
- Ez ukitu urre koloreko kontaktuak edo terminalak behatzekin edo metalezko objektuekin. Txartela zikina badago, garbitu zapi leun batekin.

### Bermatu larrialdi-zerbitzuetarako sarbidea

Baliteke zenbait leku edo egoeratan gailutik larrialdi-deirik egin ezin izatea. Urruneko herrialdeetara edo garabidean daudenetara joan aurretik, planifikatu larrialdi-zerbitzuekin harremanetan jartzeko metodo bat.

### Absortzio espezifikokoaren tasaren ziurtagiriari buruzko informazioa (SAR, Specific Absorption Rate)

Irratien eta telekomunikazio-tresnen irrati-maiztasunaren energiarekiko esposizioa mugatzen duten Europako Batasuneko (EB) arauak betetzen ditu gailuak. Arau hauek gehienezko esposizio-maila (absortzio espezifikokoaren tasa edo SAR deitua), hau da, 2,0 watt, gainditzen duten gailu mugikorren salmenta eragotzi egiten dute.

Proba-prozesuan, telefono-modelo honetarako gehienezko SAR balioa 0,238 watt/kg izan zen. Ohiko erabileran, gehienezko balioa baino dezente beherago egon ohi da SAR errealia; izan ere, hurbilen dagoen estaziora seinaleak igortzeko beharrezkoa den irrati-maiztasuneko energia soilik igortzeko diseinatua da gailua.

Ahal izanez gero automatikoki maila txikiagoak igortzen dituzenez, gailuak murriztu egiten du erabiltzaileak jasotzen duen irrati-maiztasuneko energia.

Erabiltzailearen eskuliburu honen atzealdeko adostasun-deklarazioak frogatzen du gailuak betetzen duela telekomunikazioko ekipo terminalei buruzko Europako direktiba (R&TTE). SARI eta horren inguruko EBko araei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikus Samsung-en telefonia mugikorraren webgunea.



## Produktu hau behar bezala botatzea



(Gailu elektriko eta elektronikoen hondakinak)

(Europako Batasunean eta hondakinen gaikako bilketako sistemak dituzten Europako beste herrialde batzuetan)

Produktuan, osagarrietan edo harekin batera doan material informatiboan ikur hori agertzen bada, horrek esan nahi du produktuaren edo haren osagarri elektronikoen (kargagailua, entzungailuak, USB kablea) bizitza baliagarria amaitzean ez direla bota behar etxeko gainerako hondakinekin. Hondakinak kontrolik gabe botatzeagatik ingurumenari edo osasunari sor dakizkiokeen kalteak saihesteko, bereizi produktu horiek gainerako hondakinetatik, eta birziklatu behar bezala. Horrela, baliabide materialen berrerabilpen jasagarria bultzatzen da.

Erabiltzaile partikularrak produktua erosi zuten saltokiarekin edo tokiko agintariekin harremanetan jar daitezke, modu ekologiko eta seguruan birziklatzeko nora eramán dezaketen jakiteko. Enpresa-erabiltzaileak hornitzailearekin harremanetan jar daitezke, erosketa-kontratuaren baldintzen berri jakiteko. Produktu hau eta berekin dakartzan osagarri elektronikoak ez dira bota behar enpresako gainerako hondakinekin.

## Produktu honen bateriak behar bezala botatzea



(Europako Batasunean eta baterien gaikako bilketako sistemak dituzten Europako beste herrialde batzuetan)

Produktuaren baterietan, eskuliburuan edo paketean marka hau badago, horrek esan nahi du baterien bizitza erabilgarria amaitzean ez direla bota behar etxeko beste hondakinekin batera. Markatuta badaude, Hg, Cd edo Pb ikur kimikoen esan nahi dute bateriak merkurioa, kadmioa edo beruna dituela EBren 2006/66 Direktiban erreferentziatzen jarritako balioen gainetik. Bateriak behar bezala botatzen ez badira, substantzia horiek norbaiten osasuna edo ingurumena kalte dezakete.

Baliabide naturalak babesteko eta birziklatzea bultzatzeko, bereizi bateriak gainerako hondakinetatik, eta birziklatu zure herriko doako bilketa-sistemaren bidez.

## Erantzukizunetik salbuesteko klausula

Gailu honen bidez erabil ditzakezun zenbait eduki edo zerbitzu beste hirugarren batzuenak dira, eta egile-eskubideen, patenteen, marka erregistratuen eta/edo jabetza intelektualeko beste zenbait legeren babespean daude.

Eduki eta zerbitzu horiek erabilera pertsonalerako soilik ematen dira, ez enpresetan erabiltzeko. Baliteke edukiak edo zerbitzuak erabiltzerik ez izatea edukiaren jabeak edo zerbitzu-hornitzaileak baimendu ez duen moduren batean. Aurrez esandakoa alde batera utzi gabe, gailu honen bidez erakusten diren edukiak edo zerbitzuak ezin dira inolaz ere aldatu, kopiatu, berrargitaratu, kargatu, argitaratu, transmititu, itzuli, saldu, eratorritako obrarik sortu, ustiatu edo banatu, edukiaren jabeak edo zerbitzuen hornitzaileak espresuki baimena ematen ez badu behintzat.

EDUKIA ETA HIRUGARRENEK ZERBITZUAK "BERE HORRETAN" EMATEN DIRA. SAMSUNG-EK EZ DU EMANDAKO EDUKIEN NAHIZ ZERBITZUEN BERMERIK EMATEN, EZ ESPRESUKI, EZ INPLIZITUKI, HELBURUA EDOZEIN DELA ERE. SAMSUNG-EK ESPRESUKI EGITEN DIE UKO BERME INPLIZITU GUZTIEI; BESTEAK BESTE, MERKATURATZE-BERMEEI ETA XEDE JAKIN BATERAKO EGOKITASUNARI. SAMSUNG-EK EZ DU BERMATZEN GAILU HONEN BIDEZ ERABIL DAITEKEEN INONGO EDUKI EDO ZERBITZUREN EGIAZKOTASUNIK, BALIOZKOTASUNIK, ERREPRODUKZIOARIK, LEGEZKOTASUNIK EDO OSOTASUNIK; HORREZ GAIN, SAMSUNG EZ DA INOIZ IZANGO EZ KONTRATU BIDEZ, EZ BIDEGABEKERIAZ (EZ ETA ZABARKERIAGATIK GERTATZEN DENEAN ERE), ZUZENEKO KALTEEN, ZEHARKAKOEN,

ISTRIPUENGATIKOEN, BEREZIEK, ONDORIOZKOEN, ABOKATUEN ORDAINSARIEN, GASTUEN EDO HEMEN AGERTZEN DEN INFORMAZIOAREN ERABILERAREN ONDORIOZKO KALTEEN EDO HORRI LOTUTAKOEN ARDURADUN. BESTALDE, EZ DA IZANGO ZURE EDO HIRUGARREN BATEN ERABILERAREN ONDORIOZKO KALTEEN ARDURADUN, EZ ETA KALTE HORI GERTA ZITEKEELA OHARTARAZI BAZEN ERE.

Hirugarrenen zerbitzuak noiznahi amaitu edo eten daitezke, eta Samsung-ek ez du eskaintzen edukia edo zerbitzua inongo denbora-epetan erabilgarri egoteko ordezkariarik nahiz bermerik. Edukia eta zerbitzuak transmisio-sareen eta -instalazioen bidez helarazten dituzte hirugarrenek, eta Samsung-ek ez du kontrolik horietan. Klausula honen orokortasuna mugatu gabe, Samsung-ek berariaz uko egiten dio gailu honen bidez erabil daitekeen edozein eduki edo zerbitzu eteteari edo amaitzeari.

Edukiari eta zerbitzuei lotutako bezeroarentzako arreta-zerbitzuaren ardurarik ez du Samsung-ek. Edukiari edo zerbitzuei lotutako galdera edo eskaeraren bat izanez gero, zerbitzuen eta edukiaren hornitzaileei bidali behar zaie, zuzenean.

# Aurkibidea

## ahots-deiak

- aukerak erabiltzea 30
- egitea 29
- erantzutea 29

## ahots-grabagailua 50

## ahots-oharrak

- errepruduzitzea 51
- grabatzea 50

## ahots-posta 36

## Alarmak

- desaktibatzea 63
- gelditzea 63
- sortzea 63

## Argazkiak

- argazki panoramiko bat ateratzea 41
- argazki-serie bat ateratzea 41
- ateratzea 40

editatzea 64

ikustea 65

irribarre bakoitzeko argazkiak

ateratzea 40

markoa duten argazkiak ateratzea 42

zaituako argazkiak ateratzea 41

## automatikoki ez onartzeko funtzioa 31

## bateria

instalatzea 7

kargatzea 9

## bideoak

errepruduzitzea 65

grabatzea 42

## bideo-deiak

egitea 29

erantzutea 29

## bihurgailua 64

## bilgarria kentzea 7

## Bluetooth-a

aktibatzea 59

bilatzea eta gailuekin konektatzea 59

datuak bidaltzea 60

datuak inprimatzea 60

datuak jasotzea 60

urruneko SIM modua 61

## data eta ordua, definitzea 21

## deiak

ahots-deietako aukerak erabiltzea 30

deitzea 29

erantzutea 29

galdutako deiak ikustea 30

gezurrezko deiak egitea 31

nazioarteko zenbakiak 30

uko egitea 29

deien iraupena 33

deien kostua 33

deskargak

Java jokoak 46

widget-ak 21

distira, pantaila 23

egutegia

gertaerak ikustea 49

gertaerak sortzea 49

eskurako zinta 13

FDN modua

aktibatzea 32

markaketa finkoko zenbakien (FDN)

kontaktuak sortzea 48

Fitxategi-kudeatzailea 65

FM irratia

entzutea 44

kateak gordetzea 45

gezurrezko deiak egitea 31

Google

bilatzailea 55

mapa 55

posta elektronikoa 55

Internet

web-nabigatzailea ikustea

irudi-editorea

doitzea 64

efektuak aplikatzea 64

isiltasun-profila 22

Java jokoak

deskargatzea 46

erreproduzitzea 46

kalkulagailua 63

Kamera

argazkiak ateratzea 40

bideoak grabatzea 42

kontaktuak

bilatzea 47

gogoko zenbakiak zehaztea 48

kontaktuak bilatzea 47

kontaktuak sortzea 47

markaketa finkoko zenbakien (FDN)

kontaktuak sortzea 48

sortzea 47

taldeak sortzea 48

kronometroa 66

laguntza 28

larrialdi-mezuak 38

markaketa finkoko zenbakien modua 32

menuaren pantaila 18

mezuak

ahots-postara sartzea 36

kudeatzea 37

larrialdi-mezua bidaltzea 38

mezu elektronikoa bidaltzea 35

MMS profilak zehaztea 34

multimedia ikustea 36

multimedia-mezuak bidaltzea 34

posta elektronikoa ikustea 36  
posta elektronikoko kontuak zehaztea  
35  
posta elektronikoko profilak zehaztea  
35  
testua bidaltzea 33  
testua ikustea 36  
txantiloiak erabiltzea 37

**mezuen erregistroa 32**

**memoria-txartela**  
formateatzea 12  
kentzea 12  
sartzea 11

**mugikor-bilatzailea 25**

**multimedia mezuak**  
bidaltzea 34  
ikusi 36  
profilak zehaztea 34

**munduko erlojua**  
pantaila duala zehaztea 67

sortzea 66

**musika**  
bilatzea 44  
erreproduzitzea 42

**musika-erreproduzigailua**  
erreproduzio-zerrendak sortzea 43  
fitxategiak gehitzea 42  
musika erreproduzitzea 43

**oharrak**  
ikustea 50  
sortzea 50

**pantailaren atzealdea 23**

**PC konexioak**  
biltegitratze masiboa 62  
Samsung Kies 61  
Windows Media-ren  
erreproduzitzailea 62

**PIN bidez blokeatzea 25**

**posta elektronikoa**

bidaltzea 35  
ikustea 36  
Kontuak zehaztea 35  
profilak zehaztea 35

**RSS irakurgailua 53**

**sarbide-kodeak 72**

**Sare sozialak**  
fitxategiak partekatzea 57  
webguneak zehaztea 57

**SIM txartela**  
blokeatzea 25  
instalatzea 7

**sinkronizazioa**  
Exchange zerbitzari batekin 56  
web-zerbitzari batekin 55  
Windows Media-ren  
erreproduzitzailearekin 62

**soinu-profilak 22**

**telefonoa**

- blokeatzea 24
- diseinua 14
- ezarpenak 68
- ikono adierazleak 16
- piztea edo itzaltzea 14
- pertsionalizatzea 21
- teklak 15

telefonoa blokeatzea 24

tenporizadorea 66

testu-mezuak

- bidaltzea 3, 33
- ikustea 36

testu-oharrak 50

testua idaztea 26

ukipen-pantaila

- blokeatzea 18
- erabiltzea 17
- kalibratzea 23
- trazuekin desblokeatzea 23

USIM txartela

- blokeatzea 25
- instalatzea 7

web-nabigatzailea

- gogokoenak eranstea 53
- profilak zehaztea 52
- web.orrietan nabigatzea 52

widget-ak

- deskargatzea 21
- sartzea 20
- tresna-barra pertsonalizatzea 21

Windows Media-ren erreproduzitzailea 62

zenbait zeregin 19

zereginak

- ikustea 50
- sortzea 49

zeregin-administratzailea 19

## Adostasun-deklarazioa (R&TTE)

### Guk, Samsung Electronics-ek

produktu hau ziurtatzen dugu:

GSM telefono mugikorra: GT-S3370

(hain zuzen ere, mugikor horri dagokio deklarazio hau) estandar hauek eta beste arautegi batzuk betetzen dituela.

Segurtasuna	EN 60950-1 : 2001 +A11:2004
EMC	EN 301 489-01 V1.8.1 (04-2008)
	EN 301 489-07 V1.3.1 (11-2005)
	EN 301 489-17 V2.1.1 (05-2009)
	EN 301 489-24 V1.4.1 (09-2007)
SAR	EN 50360 : 2001
	EN 62209-1 : 2006 Radio
	EN 301 511 V9.0.2 (03-2003)
	EN 300 328 V1.7.1 (10-2006)
	EN 300 908- 1 V3.2.1 (05-2007)
	EN 300 908- 2 V3.2.1 (05-2007)

Honen bidez deklaritzen da [oinarrizko irriti-probak egin direla eta] aurrez aipatutako produktuak betetzen dituela 1999/5/EE Direktibaren oinarizko eskakizunak.

1999/5/EE Direktibaren 10. artikuluan eta [IV.] eranskinean aipatutako adostasun-balorazioaren prozedura jakinarazitako erakunde hauen parte-hartzearekin egin da:

BABT, Balfour House,  
Churchfield Road,  
Walton-on-Thames,  
Surrey, KT12 2TD,  
Erresuma Batua\*

Identifikazio-marka: 0168

Dokumentazio teknikoa hemen dago:

Samsung Electronics QA Lab.

eta aurrez eskatuta emango da.

*(EBn duen ordezkaria)*

Samsung Electronics Euro QA Lab.  
Blackbushe Business Park, Saxony Way,  
Yateley, Hampshire, GU46 6GG, UK\*

2010.04.02

(igorpen-lekua eta data)

Yong-Sang Park / Lab Manager

(pertsona baimendunaren izena eta sinadura)



\* Hori ez da Samsung-en Zerbitzu Teknikoaren Zentroa. Samsung-en Zerbitzu Teknikoaren helbidea edo telefono-zenbakia jakin nahi baduzu, begiratu berme-xartelean edo galdetu telefonoa erosi zenuen dendan.



2008ko Kudeaketaren Kalitatearen  
Urrezko Q saria



Q Oro Premio a la Calidad de  
Gestión 2008